


Sortze kopurua handitzeko dirulaguntzak ematen hasi dira Nafarroan ere

Bi haur baino gehiago dituzten familiei hilabetean 55.000 pezetako (2.200 libera) laguntza ematen zaie eskatuz gero. Ho-

rretarako, ordea, bi gurasoek kontratu iraunkorra izan beharko dute, eta bietako batek lana utzi beharko du urte bateko. Baldintza hau familia gutxi betetzen dutela eta, arrenkuraz daude hainbetez guraso. Erreportajearen Frantziako dirulaguntza sistemari begiratu diogu konparaketa egiteko. + 4-6

Halere, Nafarroako Legearen arabera laguntza izateko, bi gurasoek lan finkoa izan beharko dute



Sarako Etxeberri familia



24 Kirolizketa: **Jose Antonio Loiarte, bigarren mailako txapeldun**

Irailaren 30ean Igantzin jokatutako proban garaile ateri zen Zubietako aizkolaria. Gaur egun 38 urte baditu ere, ongi prestatuz gero «lehen mailako bizpahirurekin borrokatzeko modua» ikusten omen du. Bere buruaren eta aizkoraren etorkizunari buruz mintzatu da TTI-PI-TTAPAREKIN.

3 Elkarrizketa: **Lourdes ARRETXEA**

Gurasoak baztandarrak baditu ere, Mexikon sortua da margolari hau. Azken aste hauetan Elizondoko Arizkunenean eta Berako Kultur Etxean jarri ditu ikusgai bere pinturak, batez ere Mexikoko herritar xumeen erretratoak erakusten dituztenak. «Indigenen begirada isladatzea da nire margoen xede nagusia» adierazi digu Lourdesek.

GEHIGARRI BEREZIA **Elizondoko feriak urriaren 27 eta 28an**

Udazkeneko Ferien karietarat, Baztango lau baserri hurbilagoetik ezagutzeko bide ematen da gehigarri honetan.

**MUEBLES
A METS**

Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



1. urtemugako oferta
%40ko deskontuak
koltxoietan
Larunbat arratsaldetan irekia



SAME



ARÓZ-BERRI



Aurre-
kainan
prezio
bereziak

.....
Makinak
aurtengo
prezioan
erosi eta
heldu den
urtean
ordaindu

Zaldubia Poligonoa • Tfnoa: 948 581 021 • IRURITA

DATUAK.....

❖ *Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean egindako erakusketaren ondotik, Berako Kultur Etxean ikusgai daude Lourdes Arretxearen margolanak urriaren 21a bitarte.*

❖ *«Bi munduren artean» izena du erakusketak eta Mexiko eta Euskal Herriko irudiak ageri dira.*

❖ *Lourdes beraren izaera definitzeko ere balio du izenburu horrek: Mexikon sortua, gurasoak –aita Elbeteko Amoneako Martin Arretxea eta ama, M^a Jesus Indart– eta senarra –Lekarozko Atxaborroakoa– baztandarrak ditu.*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
JON ABRIL

✍️ Lourdes ARRETXEA *Margolari mexikarra*

"Indigenen begirada isladatzea da nire margoen xede nagusia"

MEXIKOTIK KANPO ZURE LANAK ERAKUSTEN DITUZUN LEHENDABIZIKO ALDIA DA, EZ DA?

Profesionalki, koadroekin-eta Mexikotik ateratzen naizen lehen aldia da. Egia errateko, 29 koadro hartu eta honat etortzea eromena da, ongi pentsatzeko kon-tua da.

ZURE KOADROEN ESTILOAN ALDAKETA NABARRI DA, MEXIKO EDO EUSKAL HERRIA MARGOTZEN DUZUNEAN...

Bi mundu ezberdin dira eta estilo aldaketa nabaritzen ahal dela uste dut. Ni Mexikon bizi naiz, noski, eta berriz modu batean ikusten dut nire herrialdea, zuek ikusten duzuenaren ezberdina seguraski. Harat joaten bazarete turistak izanen zarete. Hemen, arbasoak eta senarra hemengoak izanik, ni turista soila ez banaiz ere, zuen ikuspegi ezberdina dut. Horregatik aldatzen dira bi pinturak.

MEXIKORI DAGOZKION MARGOLANETAN ERRETROTOAK EGITEN DITUZU GEHIEN BAT. ZER ISLADATU NAHI DUZU?

Indigenen begirada isladatzea gustatzen zait. Hori da nire xedea. Normalki indar handia erakusten du beraien begiradak, jende arras langilea da... Xarmanga-



«Profesionalki Mexikotik ateratzen naizen lehen aldia da».

ria iruditzen zait begirada hori koadrorara ekarri eta ikusleak begirada horrek erran nahi duena ulertzea. Hori da nire borroka eta nire estudioa.

ZURE KOADROEN BERTZE EZAUGARRIA KOLORE BIZIAK DIRA. MEXIKOREN EDO LOURDESEN ISLADA DA?

Mexikoren islada da, indioen arropen kolo-

rea, jendearen kolorea, baita etxeen kolorea... Gurekin bizi den zerbait da eta mexikarrontzat errexa da hori azaltzea.

TEKNIKA BEREKIAK ERE ERABILTZEN DITUZU, GURETZAKO EZEZAGUNAK DIRENAK.

Hemen inork ez du ezagutzen *punta de plata* izeneko teknika, horrek harritu nau. Horregatik, azalpena jarri dut koadroen ondoan. Izan ere, zoragarria iruditzen zait erakusketak batean zerbait erakutsi ahal izatea, zerbait didaktikoa izan dadila.

BAZTANEN, USTEGABE-

KO ARRAKASTA IZAN DUZU.

Ez nuen inoiz ere halako arrakastarik espero. Jende aunitz izan da erakusketa ikusten eta koadro aunitz saltzea lortu dut, ezin naiz kezatu. Mexikon erakusketa batzuk egin ditut, baina egia errateko, Mexikon bertan baino arrakasta handiagoa izan dut. Inor ez da profeta izaten bere herrialdean. Izandako arrakasta ikusirik itzultzeko asmoa dut, baina hemendik bizpahiru urtera. Orain, atsedena hartu berriz proiekturik ez dut.

► *“Inor ez da profeta izaten bere herrialdean eta Mexikon baino arrakasta handiagoa izan dut Baztanen. Hori ikusita, berriz ere itzultzeko asmoa dut.”*



FAMILIA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Haur gehiago sortzea nahi da

Nafarroako Gobernuak abuztuaren 2an onartu zuen foru dekretuaren arabera, 2 haur baino gehiago dituzten familiei dirulaguntza emanen zaie eskaera eginaz gero. Azken urteetako estatistiken behetirako joera ikusita, jaiotza-tasa sustatzea da Gobernuaren asmo nagusia. Dena den, dirulaguntza sistema berriak ez ditu inondik inora familia guzien beharrak asetzen, are gehiago, banaketa egiteko orduan hutsune larriak daudela erran daiteke.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **ASIER GOGORTZA**

Azken hamarkadetan Nafarroan sortze kopuruak beheiti egin duela erratea ez da gauza berria, gure inguruan bertan nabarmen baita gero eta haur guttiago sortzen dela. Nafarroako Gobernuaren estatistiken arabera, 1976tik 1998ra, 22 urtetan, jaiotze-tasak erdira egin du herrialdean. Hortik ondorioa atera dute Nafarroako jaiotze-tasa belaunaldiak ordezkatzeko beharrezkoa den kopuruaren azpitik dabilela, hau da, emakume bakoitzeko

2,1 seme-alaba baino puska guttiago sortzen dela. Gaur egun haur guttiago izatearen arrazoietako bat, bi gurasok etxetik kanpo lanean aritzea omen da kasu auniztan, eta familiari eskaintzeko denbora eskas dutela horregatik.

Gauzak horrela, Gobernuak onartu berri duen lege honen bidez lana eta familia bateragarriak egin nahi dituzte. Bi modutakoak izanen dira laguntzak: bigarren seme-alaba sortzen delarik 55.000 pezeta (2.200 libera) hilabetero, haurrak urtea egin arte; eta, jaio dena hirugarrena baldin bada, diru berdina hiru urtez.

Bainan dirulaguntza hauek jasotzeko baldintza bat bete behar da nahitaez, bi gurasok behin-betiko kontratua izatea, alegia, eta bietako batek urte bateko edo hiru urteko eszedentzia eskatzea lanean. Eta hortxe dago kokka. Zenbat bikotek betetzen dute baldintza hori? Eta betetzekotan, merezi al du eszedentzia eskatzea 55.000 pezeta hoiiek hartzeko?

“Lege bidegabeta da”

Dirulaguntza eskaera egin duten gurasoetako batzuk ere onartu dutenez, legea ez da baltete justua, gehien behar dutenei laguntza ukatzen baitaie.

«Bigarren semea edukitzen duten guzientzako izan beharko luke» dio Esther Alkaraz leitzarrrak.

Bertzalde, bikiak edo hirukiak izaten dituzten familiek lehen hiru urtetan 10.000 pezeta inguruko (400 libera) dirulaguntza hartuko dute seme-alaba bakoitzarengatik. Nafarroako Ongizate Institutuak partituko dituen dirulaguntza hauez gain, lehendik ere Gizarte Segurantzak ematen zituenak daude bixkien jaiotzarako: 282.720 pezeta (11.300 libera) urtean.

Nafarroako Ongizate Institutuaren dirulaguntza hauek Espainiako Estatuan aitzindariak dira, bainan galdegin diegun gurasoen arabera hagitz eskasak dira haurren gastuak ordaintzeko. Denak ados dira gauza batean, «deus baino hobeki da» diote, «bainan laguntza hauekin jaiotze-tasa goitu nahi badute alferrik ari dira». Maribi Irujo Nafarroako Ongizate Institutuko langileak erran digunez laguntza hauek «le-

«Laguntza hauengatik ez da inor animatuko haurra izatera»



Bixkiak izan dituzue uda n, eta lehendik bazenuten bertze haur bat. Zenbateko laguntza emanen dizuete?

Bi diferente daude. Gizarte Segurantzak ematen duena, 280.000 pezeta (11.200 lib.), eta bertzetik, Ongizate Institutuak 12.000 pezeta (480 lib.) ematen du lehen 12 hilabete-tan bixkiak izateagatik.

Lehen bi laguntzak ez omen ziren bateragarriak, baina orain bai.

Diru hori nahikoa da haurrak hazitzeko?

Aski ez, baina lagungarria bai. Hilabetean 12.000 pezetarekin ez duzu deustarako. Gero gainera hazitzen direnean orain baino gastu gehiago izaten dituzte.

Biek lanean ari zarete. Bietako batek eszedentzia eskatu behar duzue?

Oraindik ez. Ni pentsatzen

ari naiz hain zuzen, nola bertze laguntza horiek ere aterari dituzten... gure kasuan hartuz gero bixkiek hiru urte bete arte jasoko genuke laguntza. Hauekin ia hiru haur ditugu, eta gainera k

haurtzaindegira eraman edo zaintzeko norbait hartu behar

Laguntza hauek gehiagora joanen direla uste duzu?

Bai, denborarekin pentsatzen dut goiti joanen direla. Ez dakit Frantziaren pare jarriko den, baina...

Nik uste laguntza hauengatik ez dugula ume gehiago izanen. Laguntza hauek familia sustatzeko dira, baina diru horrengatik inor ez da animatuko haurra izatera. Gainera gaur egun familia ugaria izateak ez du apenas deustarako balio.

Bertzalde laguntzak bidegabe xamarrek ote diren aipatzen du jendeak.

Badira arrenkurak, bai. Eszedentzia eskatzen ahal dutenentzat dira, kanpoan lan egiten dutenentzat bakarrik.

hen pausua dira familiari ahalik eta laguntza gehien emateko bidean, horrengatik sortu da familiari laguntzeko sail berri bat Ongizate Institutuan».

Frantzia 1946an hasi ziren laguntzak

Argi dago laguntzen sistema baduela zer hobetarik nafarroan. Ez da sobera urrun joan behar, gainera, dirulaguntzen sistema aurreratuagoa ezagutzeko. Saran eta Senperen bertan, jakina denez, aspalditik

hartzen dituzte laguntzak seme-alabentzat. Frantzia 1946an hasi ziren familiei laguntzak ematen, eta gaur egun hainbat aukera desberdin dute gurasoek. Ezpeletako Beatrice Agerrak erran digunez, ume bat sortzen delarik automatikoki ematen zaio dirulaguntza bat bere familiari, ez da eskaerarik egin behar. Beatrice Baionako bulegoan gizarte laguntzaile bezala ari da lanean azken 30 urteetan. «Frantzia, emazte bat haurdun dagoelarik 5. hila-

«Ama gehienek bigarren haurrarekin hiru urtez uzten dugu lana»

Zuk hiru seme dituzu, eta bigarrena izan zenuenetik hasi zinen dirulaguntzak hartzen, ezta?

Bai, bi haurrentzat 700 liberatik goiti (17.500 pta) ematen dute, eta hirurentzat antxu 1.500 libera (37.500 pta) hila-betean. Hiru haur baino gehiagoko familia guti da hemen, baina hirurekin franko poliki. **Dirulaguntzek badute zerikusia horretan?**

Ez. Lanak batez ere. Laguntza ongi da, baina ez da dena. Badugu aukera bat, bigarren haurretik aitzinera, lana utzi eta etxean hiru urtez egoteko. Hilabetean 3.000 libera (75.000 pta) ematen dauzkigute hiru urte hoietan. Gero lana atxikitzen duzu berriz. Nik bigarren eta hirugarren semeekin egin dut hautu hori. Ez dut diruarengatik egin, eta ez dut pentsatzen aintz jende dagoenik diruari begira. Ematen zaituzte laguntza baina gero haurarentzat behar duzu dirua, eskolarentzat, bizitzeko... laguntza da, baina ez negozia.

Hiru urte hoietan aski izanen da dirulaguntza zure jorنالordezkatzeko?

Ez, baina balio du haurrekin etxean izateko. Laguntza hori berdina

da denendako.


Jende aunitzek hartzen du erabaki hori?

Gehienek, ez badute postu arras ona bederen. Senarrak ere berdin hartzen ahal du.

Bertze gisako laguntzarik baduzue gurasoek?

Bai, haurdunaldiaren 5. hilabetetik aitzinera 900 libera (22.500 pta) hartzen dira hilerro, haurrak hiru hilabete egin arte. Haurrak 3 urte bete arte kalkuluak egiten dituzte eta horren arabera laguntza duzu. Haurrak eskolan hasten direlarik ere baduzu laguntza. Gurea 6 urtetan sartu zelarik 1.600 libera (40.000 pta) hartu genuen urtero. Bertzalde, udalekuean joaten direlarik ere bai.

Urte lehenean deklarazioa egiten dugularik kalkulatu dituzte urte guziko laguntzak.



betetik aitzinera 1.000 libera (25.000 pta) hartzen ditu haurrak hiru hilabete izan arte», dio, «esposatua egon edo ez» gaineratuz. Bigarren haurra sortzen delarik amak edo aitak hiru urtez lana utzi eta etxean egoteko eskubidea dute, hilabetero 3.000 libera (75.000 pta) eskuratuz. Bertzalde, haurrak eskolan hasten direlarik diru kopuru bat hartzen dute gurasoek, eta 20 urte bete arte seme-alaba bakoitzarengatik laguntza bat hartzen dute hilabetero-

hilabetero. Horrez gain, bi gurasoak lanean ari eta haurrak zaintzeko pertsona bat hartu nahi baldin badute Gobernuak langile hori ordaintzen laguntzen die, eta zenbait kasutan gastu guziki ordaintzen ditu.

Hoiez gain bertze dirulaguntza batzuk ere badituzte familia bakoitzaren ezaugarrien arabera. Dirulaguntzen sistema honek bere fruituak eman ditu Beatricek dioenez: «1959tik honat %49an goitu da sortze-kopurua Frantzia». ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu.
Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria160 Libera
Europa4.000 Pta.
Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Dirulaguntzak haurrak izateagatik

Diru horrekin ez dut hilabeteko janaria erosteko ere



Irene UHALDE
Doneztebe

Uztailaren 20an gure hirugarren alaba izan dugu. Haurrasortu aitzinetik egunkarietan irakurri nuen dirulaguntzen kontu hau, eta erabaki genuen eskaera egitea. Nik lanean eszedentzia eskatu behar nuen, baina laguntzen berri izan nuenean hiru urtekoa eskatu nuen. 12 urtez enpresa berdinean aritu naiz eta behar bada horregatik eszedentzia eskatzen ahal dut, baina gaur egun lan merkatua dagoen bezala ez da batere erraza eszedentzia lortzea. Laguntza ematen badigute heldu diren hiru urte hauetan 55.000 pezeta kobratuko ditugu hilabetero Nafarroako Ongizate Institututik. Argi dago ezin dela laguntza horietatik bizi, baina ez da nere kasua, nik eszedentzia eskatu egin behar nuen dena dela. Diru horrekin ez dut hilabeteko janaria erosteko ere. Bertzalde, ikaragarria da zenbat paper eskatzen dituzten 3 haur dituzula eta lanean ari zarela frogatzeko. Iparraldeko egoerarekin ezin da konparatu. Lehengusabatu bat dut Ainhoan, eta berak 5 seme-alaba ditu. Erraten duenez merezi du haurrak izatea, egitan ongi baitaude dirulaguntzak.

Nere ustez laguntzak denentzat izan beharko luke, lanean ari edo ez



Esther MENTABERRI
Bera

Nik kasualitatez izan nuen dirulaguntza hauen berri. Eman zizkiguten tomate batzuk periodiko orritan bilduak, eta hor jartzen zuen Nafarroako Gobernuak bigarren seme-alabarentzat dirulaguntzak emateko asmoa zuela. Horretarako urte bateko eszedentzia eskatu behar da, azken urteetan Nafarroan bizitu zarela frogatu behar duzu... Nik eszedentzia eskatu nuen lan egiten dudana jabetzeko. Berez emakumearen eskubidea da, amatasun bajaz gain (16 aste), urte bateko eszedentzia hartzea haurdun zaudelarik, baina horretarako fijo egon behar duzu nahitanahiez. Laguntza honek ez du ematen haur bat zaintzeko, ezta zapiak erosteko ere. Haurren gauzak hagitx garesti dira, zapiak, arropak, esnea... baina hobe da laguntza hau deus baino. Lehen alabarekin etxean gelditu behar izan nuen lanik ez nuelako, eta ez nuen batere laguntzarik. Nere ustez laguntzak denentzat izan beharko luke, lanean ari garenentzat eta lanik ez dutenentzat ere. Kontua bi ume edo gehiago izatea da, ez?

Lege bidegabera iruditzen zait, eta ez dut uste jaiotze tasa igotzea lortuko dutenik



Esther ALKARAZ
Leitza

Nik hauteskunde aurretik izan nuen lehen aldiz dirulaguntza hauen berri. Dena den aipatu zidaten horri kanpaina hutsa izanen zela eta hobe nuela ahaztea. Orain abuztuaren atera direnean gizarte laguntzaileari deitu eta Iruñera deitu genuen ze paper behar nuen jakiteko. Nik oraindik ez dut kobratu, baina suposatzen dut emanen didatela. Beraz, urte batean 55.000 pezeta hartuko ditut hilabetero. Ez da nahikoa, gutxi da, baina beti laguntza bat da. Nik ez dut uste honekin jaiotze tasa igotzea lortuko dutenik. Oso lege injustoa iruditzen zait. Aitak eta amak fijo egon behar dute eta lanik egiten ez dutenentzat ez dago deus. Hirugarrenetik aurrera bai, baina bi haurrekin ez. Guretzako hor nonbait, biek fijo gaudelako, baina horrela jende gutxi dago. Izan beharko luke bigarren semea edukitzean duen guzientzako. Lan egiten duenak suposatzen da erraxago lortzen ahal duela diru hori, baina lanik ez duenak... Hala ere denborarekin igual aldatuko dute.

ttapi-ttapa fundazioak
Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratatutarako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak

Leitzako Lizarra-Garazi Taldea 25 elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta kolektibok osatua

Leitzako Lizarra-Garazi ttikiaren hausnarketak eta ondorioak

Leitzan Lizarra-Garazi Akordioari atxikimendua eman genion taldeok, Akordioa bera eta Euskal Herriko egoera politikoa- ren inguruan hainbat ezta- baida eta ekintza egin di- tugu azken hilabeteotan. Idatzi honen bitartez, ate- ratako ondorioak gizarte- ratzea eta norberari haus- narketa pertsonalak eragi- tea nahi genuke:

Gatazka politikoa da Akordioak dioen bezala, Euskal Herrian dagoen ga- tazka politikoa. da, Euskal Herriari nazio gisa di- tuen eskubideak uka- tzen zaizkiolako eta euskal gizartearen hi- tza eta erabakia aint- zakatatzat hartzen ez delako (lurraldetasu- na, autodeterminazio eskubidea, erabaki s u b j e k t u a ...). Gatazkak jatorri his- torikoa du, egungo arazoaren erreak az-

ken mendeetako gerrate eta liskarretan ere islada izan dute. Arazoa politikoa ez bada, zergaitik ematen zaio garrantzi eta oihartzun haundiagoa Euskal Herrian gertatzen denari? Arazoa politikoa ez bada, zergatik Euskal Herrian gertatzen diren biolentzia espresio- ei ez zaie Estatuko beste edozein lekutakoei beza- lako tratamendua ematen? Gatazkaren ondorioak Nabarmenak eta minga- rriak dira. Batetik, pertso- nen sufrimendua eragiten dutelako: heriotzak, tortu- rak, presoak, kalte ekono- mikoak, etab. Bestetik, on- dorio kolektiboak. Euskal Herria herri gisa desager- tarazi nahi da: zatiketa po- litiko-administratiboa bul- tzatuz, euskarari eta kul- turari eraso eginez, ira-

kaskuntzako edukiak in- posatuz, adierazpen aska- tasuna eta esparru ekono- mikoak oztopatuz, ... Azken finean, euskal gizartea era- bakiak hartzeko ahalme- nik gabe dago.

Ondorio hauek, indibidua- lak nahiz kolektiboak, gi- zartean oihartzun handia dute, pertsonen arteko ha- rremanetan zailtasunak sor- tuz.

Lizarra-Garaziko akordioa garrantzitsua Bi estatuen urduritasuna da horren froga. Euskal

Gehiengo politiko eta soziala
behingoz ados jarri zen
gatazkaren diagnosian eta
hori gainditzeko
metodologian. Gatazka
politikoak irtenbide politikoa
behar du, eta elkarrizketa eta
negoziazioa da bidea

Herriko gehiengo politiko- soziala behingoz ados ja- rri zen gatazkaren diagno- sian eta hori gainditzeko metodologian. Gatazka po- litikoak irtenbide politikoa behar du, eta elkarrizketa eta negozioazioa da bidea. Oraingo egoeran ere, Leitzan Lizarra-Garazi ere- du bezala erabiliz, hainbat talde eta pertsona biltzen gara gogoeta egin eta on- dorioak ateratzeko. Egoera gogorretan ere itxaropena mantentzea onuragarria da. Ez al da elkarrizketa ego- era gainditzeko bide ego- kiena? Beste bideak, orain artekoak, jorratuz ez ote du gatazkak luze iraunen? Ez al dugu nahikoa sufritu?

Akordioaren hutsuneak nabarmendu dira - Bakarrik abertzaleen ar- teko elkarlanean gertatzea,

euskal gizarte osoaren be- netako inplikaziorik gabe. - Dena alderdi politikoen esku utzi izana beste giza- taldeak bigarren mailan gel- dituz. Alderdiek beren pa- trimoniotzat hartu dute Akordioa. Ez al dugu de- nok autokritika konstruk- tiberik eginen? Ez ote du pertsona bakoitzak norma- lizazioaren bidean gehia- go emateko gaitasunik? - Hainbat herritan Lizarra- Garazi txikiak sortu ziren. Non gelditu horien iritzia, lana eta energia?

Hitz asko, egin gutxi - Asko hitz egin da baina ezer gutxi egin edukien in- guruan, sustraiko arazoari irtenbideak bilatzeko ga- raian (Lurraldetasuna, era- baki subjektua, autodeter- minazio eskubidea, bio- lentzia espresio guz- tien desagerpena,...). Herriak hitza eta era- bakia garatzeko gai- tasunik izanen ote du noizbait? Hizketan hasteko ere salba ezi- nak izan daitezkeen aurrealdintzak jar- tzea egokia al da?

Komunikabideen erantzunkizuna - Pentsaren jokaera ez da egokia izan. Horrelakoetan prentsak inpartziala izate- az gain, bere indarrak ba- kerako metodologia des- berdinei buruzko informa- zioa eskeintzera bideratu behar ditu, ez proposame- nak satinizatzen. Prentsak bakegintzan erantzunkizun handia du. Akaso Espainiako prentsan (tele- diarioak, irratiak, egunka- riak,...) Lizarra Garaziko Akordioaren edukia inoiz azaldu al dute? Espainiako biztanleek ba ote dakite be- netan Akordioaren oinarri nagusia elkarrizketa bul-

tzatzea dela? Lizarra Garazirekin bat egin ge- nuen taldeak gai izan al ga- ra horrelako jokaerei aurre egiteko? Ez ote gara de- fentsiban ibili?

Lizarra-Garaziri jarri zaizkion oztopoak Oztopoak ugariak eta na- barmenak izan dira:


- Kanpo presioa, batez ere Espainia eta Frantziakoa. Presio mediatikoa, hilke- tak, negoziazioetan bitar- tekariaren atxilotetak, tortu- rak, etab.

- Presoen sakabanaketa be- re horretan dago. Gaur egun, gatazka gordintzeak irtenbiderako adostasune- ra iristea zaildu egin du. - Alderdi politikoek egiten duten erabilpen partidista. Norberaren interesen eta koiunturaren arabera, inte-

Alderdi politiko, gizarte
mugimendu eta orohar gizarte
osoari, presio guztien gainetik
elkarlanean eta elkarrizketan
tinko eusteko eskatzen
diegu

res orokorren gainetik. - Lizarra-Garazi sinatu zu- tenen definizio eza. Hala ere, Lizarra-Garazi tresba balioagarria da Hala iruditzen zaigu bizi- tzen ari garen momentu gordin honetan, herri ho- nen askatasuna eta pakea lortzeko. Alderdi politiko, sindikatu, gizarte mugi- mendu eta orohar gizarte osoari, presio guztien gai- netik elkarlanean eta elka- rrizketan tinko eusteko es- katzen diegu, beren arteko liskarrak eta alderdiko in- teresak alde batera utzita.

Leitzan, 2000ko irailean.



Egunkaria 00ko urriak 5

«Nire betiko ingurutik urrunduta egotea erabaki dut azken egunetan, entrenamendu saio eta prestakuntza fisikoetan buru-belarri jarduteko, horrela pilota profesionalera sasoi betez itzultzeko».

Mikel GOÑI
Oronozko pilotaria
Egunkaria 00-10-05

«Senia Ahmed eta Hakina Nafee Saharako nexkak hemen gelditu dira eta beraien familiak oso pozik daude. Han, osasun baldintza kaxkarrak dituzte. Udan, Saharako bi mutiko izan genituen etxean, beraz, ohituak gaude».

Lourdes BALANTZATEGI
Leitzakoa
Diario de Navarra 00-10-06

- ◆ Zer gertatu zen genetikoki Goizuetakoa zen erlearekin?
- ◆ Aurkikuntza ikaragarria izan da. EEBBetan eta Parisen egindako ikerketek Goizuetako erleak ezaugarri genetiko paregabeak dituela erakutsi dute.
- ◆ Gaur egun soldata bat eskuratu al daiteke erleekin?
- ◆ Bai, dirulaguntzak ere badaude eta 300 edo 400 erlauntzekin eta suerte pixko batekin soldata ona atera liteke.
- ◆ Zenbat kilo ekoizten duzu urtean?
- ◆ 70 erlauntzei urtean 300 kilo kentzen dizkiet.
- ◆ Beste lekuetakoa baino hobea al da Goizuetako ezitia?
- ◆ Zalantzarik gabe. Hemenko ainar, gaztain eta alkazien loreei esker paregabea da hemengo ezitia. Sendagarria da gainera. Arazo bat, euri asko egiten duela hemen.
- ◆ Jubilatuz geroztik, erlezaintzaz gain zertan igarotzen duzu denbora librean?
- ◆ Nere ordu libre guztiak erlezaintzarako dira.
- ◆ Futbol partida eder bat utziko al zenuke elkartearen lagunekin afaltzeagatik?
- ◆ Futbolzale eta Errealzale amorratua naiz, baina nahiago dut lagunekin afaldu.
- ◆ Pilota ere gustatuko zaizu orain, ez da?
- ◆ Suhi beharra pilotaria dudalako galdetzen al didazu horrela? «Orain» asko gustatzen zait, baina lehen ere bai.
- ◆ Noiz eta zergatik etorri zinen Goizuetara?
- ◆ Ollingo minetako mantenimendu elektrikoan lana eskaini zidatelako etorri nintzen Tuteratik 1958. urtean.
- ◆ Mantentzen al duzu harremanik zure jaioterriarekin?
- ◆ Ez, tarteka ama ikustera soilik joaten naiz Tuterara.
- ◆ Sentsazio berezirik somatu al duzu zure alaba Mirentxuk aitona egin zaituenean?
- ◆ Ikaragarrizko ilusioa egin dit. Haur bat etxean ikusteak gaztetu egin nau.
- ◆ Gero eta hobea al da zure euskara?
- ◆ Ametsak euskaraz ez egiteak ematen dit pena.



Jose Ramon JIMENEZ
Erlezaina
GOIZUETA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



ZALAIN
JATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

EGUNERO ALNITIA CIA KAITA

Boda eta banketeak ematen dira

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

J. RAMOS

Zolak akutzilatu eta barnizatzen dittut

☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA



Loredenda



Azalea

- ✿ Zentroak aukeran
- ✿ Loreak, krisantemoak, klabelak...
- ✿ Landareak, ziklamenak, azaleak...

Altzate 26 • ☎ 948 631 121 • BERA

ttipi-ttapa internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.com



KULTURA

Urriaren 29an antolatuko da Bortzirietan Nafarroako III. Trikitilari Eguna

Nafarroako bazter guzietako 300 trikitilari inguru bilduko da egun horretan

JOSEBA ETA NEREA

Nafarroako trikitilari guziak elkartzeko aukera izanen dute urriaren 29an, igandean. Egun hortan ospatuko da Bortzirietan Nafarroako III. Trikitilari eguna. Elkargunea Lesaka izanen bada ere Bortziria osoan barrena zabalduko dira trikitilariak (Lesakan bertan, Etxalarren, Beran, Igantzin eta Arantzan).

AUSPO SOINUAK
NAFARROAKO
BAZTERRETAN

Urte aunitz badira jadanik trikitixak bere zabalpenari Nafarroako hainbat xokotan hasiera eman ziola. Ordituk izan dugu dantzatu eta ongi pasatzeko aukera musika-tresna honen bixitasunarekin eta alaitasunarekin. Trikitixaren hazia sustraitu nahirik, txapelketak antolatzen hasi ziren. Lautan antolatu da Nafarroako Trikitixa txapelketa, baina bide hau baztertu eta Nafarroako Trikitilari Egunak hartu zion erreleboa: duela bi urte an-



Egun ederraz gozatzeko parada izanen dute bildutako trikitilariak. Argazkia, joan den urteko Trikitilari Egunekoa da.

Jone Elgorriagak utzitako argazkia

tolatu zen Barañainen Nafarroako I. Trikitilari eguna, eta iaz Sakanan bigarrena. Aurten, berriz, Bortzirietara ekarri da topagunea.

Egun hau Nafarroako trikitixa eskola guziak elkartzeko eguna da; elkar ezagutzeko, ongi pasatzeko, ikasleek urtean zehar ikasitakoak karrikartzeko... azken finean, gure inguruko bazterretan trikiti doinuak betetzeko. Nafarroako III. Triki-

tilari eguna Lesakan antolatzearren arrazoia ez da kasualitate hutsa. Izan ere, Bortzirietan aunitz dira trikitixa eta panderoa ikasten eta jotzen ari direnak. Hortxe ditugu horren adierazgarri, Lesakako, Etxalarko, Arantzako eta Berako trikitixa eskolak, ehun ikasletik goiti bilduz dituztenak.

EGITARAU ZABALA

Goizeko 10etan emanen zaio hasiera egun

honi, Lesakako plazan. Bertan egingen zaie harrerera talde guzietan. Ondotik, Lesaka Trikitixa Taldeko gurasoek presatutako hamarretakoa emanen zaie bai trikitilari eta bai panderojoleei. 11tan trikitixa eskolak banatu egingo dira: autobusez, bakoitza Bortzirietako herri batera joanen da. Herrietako xoko guziak alaitu ondotik 2ak aldean Lesakan elkartzeko dira berriz ere denak. Elka-

rrekin joanen dira frontoira bazkaltzera. Bazkaria irekia da, joan nahi duten guzientzat. Txartelak salgai egonen dira 1.200 pezetatan hurrentzat eta 2.000 tan helduentzat. Bazkalondotik, 4etan Bortzirietako Bertso-eskolako hiru bertsolarik saioa eskainiko dute. Setan trikitixa eskola bakoitzak bere saioa emanen du (bina kanta eskainiz) eta honen ondotik trikitilari guziak elkarrekin joanen dira frontoitik plazara «Santimamiña» eta «Maria Jesus» abesti ezagunak joz. Aipatzekoa da, sari sorpresa izanen duen zozketa egingen dela. Egunari akabaila ona emateko ETZAKIT taldearekin izanen da dantzaldia arratseko 7,30etan, Plaza Zaharrean.


Kasik Nafarroa osoko trikitixa eskola guziak Bortzirietara joanen direla kontuan hartuz, guzira, trikitilarien eta panderojoleen artean, 300 pertsona inguru bilduko da Nafarroako III. Trikitilari egun honetan.

 **Rafa: 600 819 640**
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alberto
RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

 **Iriarte-Echandi, s.l.**

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

bortzIRUDI 
BERA

ESTAMPATZAK • PAPERERIA • BERTSO-ESKOLA
ENKUAZTATZAK • INPRINTA LANAK • BERTSO-ESKOLA
PLASTIKEN AZKAR • BERTSO-ESKOLA
TAXA • ISMILIA • BERTSO-ESKOLA
SERRANERIA • ABLAGA MUNDUAK • BERTSO-ESKOLA

Eztegara 26 behe • Tel.- Faxe: 948 63 15 21

Urriaren 29an hamalau urte beteko ditu Lurraren Egunak

Agerran eta lamotenea parean markesinak jarriko dituzte

ASIER GOGORTZA

Lizuniagako Igoeran parte hartuko duten lasterkariak irekiko dute bertze urte batez Lurraren Eguna. Ondotik, Bortzirietako baserrietako produktuek eta artisauen lanek hartuko dute protagonismoa. Musika ere nonahi izanen da egun guzian. Goizean Berako trikitalariak eta Musika Eskolako banda, akordeoilari eta txistulariak ibiliko dira karriz-karrika.

Bazkalondoan, berriz, txaranga, trikitixa eta bertso doinuak izanen dira aditzeko, baita perkusio talde baten emanaldia ere. Azkenik, Altzateko plazan Irats taldeak joko du gasna enkantearen ondotik, eta gauez Arantzako Zioren taldea ariko da eskenatokiaren gainean.

Markesina berriak

Autobusaren esperan egoteko aterpeak jarriko dira Agerra auzoan eta lamotenea parean. Nafarroako Gobernuaren kontu joanen da markesinak eraikitzea, eta mantenua berriz Herriko Etxearen esku izanen da.


Filipinetako abesbatza Manila College Glee



Patxi Vilak Banestorekin eginen du salto profesionaletara. Banesto taldearekin korrituko du Patxi Vilak heldu den denboraldian, joan den astean sinatu baitzuen bi urtetarako kontratua talde nafarrarekin. Jose Miguel Etxabarrak agindu dionez hiru lasterketa handietako batean bederen lehiatuko da (Giroa, Tourra edo Espainiako Itzulia). 25 urte ditu txirrindulari beratarrek, eta afizionatuetan urte mordoxka batez ibili ondotik hiru zuten profesionaletara pasatzeko azken saiakera. Erran behar da, bertzalde, Banestoren afizionatu taldea desagertu egin dela, bainan Jon Bru beratarrek oraindik aukerak badituela talde profesionalean sartzeko, nahiz eta lerro hauek idazteko orduan segurutik ez jakin.

Clubeko Ateneoko korala Beran ariko da kantari heldu den azaroaren leian. Filipinetako besbatzarik zaharrena da, eta nazioarteko lehiaketa garrantzitsuetan sari ugari lortu ditu, bertzeak bertze, Tourseko abesbatzen txapelketan 5 lehen sari eskuratu zituen sail desberdinetan.

Berako abesbatzak antolatu du saioa, Herriko Etxearen laguntzarekin. Berako Kultur Etxean izanen da hitzordua, arratsaldeko 7etan.



Ibardingo bidea moldatzen ari dira Irailean hasi ziren Ibardineko bidea berritz goititik hasi eta herrira arte. Malerrekako M. ezkurrena enpresako langileak ari dira lan hotan, eurek aurkeztu zuten 76 milioiko eskaintza izan baita hobereana.

Arg.: Asier G.

Personaiak

Etorkizun handiko txirrindularia

Oraindik infantiletan aritzen bada ere, ikaragarriko palmaresa du dagoneko 14 urteko beratar honek. 63 lasterketa irabazi ditu Josebak azken 5 urteetan, txirrindularen gainean konpetitzen hasi zenez geroztik, alegia. Aurten infantilekin lehiatzen zen bigarren eta azken urtea zuen (13-14 urte), eta guzira 13 karrera bereganatu ditu. Gainera, 6 aldiz bigarren gelditu da eta 2 aldiz hirugarren. Aipagarria da Iruñean egiten den Izarra Sarian beragailundela azken hiru urteetan, eta iaz Nafarroako Kirol Jokoak irabazi zituela.

Berekin batera, Joseba Errandonea eta Iñigo Irazoki beratarrek osatzen dute Gure Txokoaren infantilen taldea, bainan heldu den urtean kadeteetara pasatu beharko dute. Zorte on hiruei eta segi bide horretan!



Joseba LARRALDE

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

URRUMI-GOZTESIA

Altzate, 19•948630786 •BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BOIXO

948630052 •Zalain•BERA

➔ LESAKA

Rafa Maritxalar, atletismoa eta garraioa lotzen dituen korrikalaria

Entrenamenduak bertze gisa batera egiten ditu orain

AITOR AROTZENA

Aspaldi xamar ez dugu Rafa Maritxalar korrikariaren berri izan prentsa bidez, baina, aldi berean, inoiz baino gehiago ikusten dugu herrian. Azkeneko urteetan Iruñean bizitu da, bertako erresidentzia batean, atletismorako prestakuntza lantzeko asmoarekin. Aurten, ordea, bertze gisa batera prestatzea erabaki du eta korrika egiteaz gain, aitaren garraio enpresan hasi da lanean. »Atletismoa beti bertze lan batekin konpagnetzen saiatu naiz, emaitza hoberenak orduan lortu baitut. Lehen Iruñeko kirol denda batean aritzen nintzen, orain berriz, aitaren enpresan».

«KROS HERRIKOIAK PISTAKO KONPETIZIOA BAINO NAHIAGO DITUT»

Atletismoari eskainitako urte hauetan marka ederrak egin ditu. Batez ere 1.500 metroan aritzen da pistan, baina gehien gustatzen zaizkionak, kros herrikoiak dira. »Pistako probak hagitik konpetitibokiak dira, postu eta marka ona egitera bertzerik ez zara ateratzen. Kros herrikoietan, berriz, bertze jendearekin harremanatzen zara,



Rafa Maritxalar, Lesakako Herri Krosean. 1999ko lasterketa irabazi egin zuen.

atletismoa bertze gisa batera ikusten dutenak eta politagoa da» dio Rafa Maritxalarrek.

Pilarika egunean Iruñeko Milian parte hartzera gonbidatu zuten, Reyes Estevez eta

bertze korrikalari handiekin batera. Espero bezala, ez zuen postu onik lortu, baina »polita izaten da horrelako korrikalarien ondoan egon eta argazkietan bertze gisa batera ariekin ateratzea.

Oroitzapen polita da». Aitzinera begira, Lizuniagako Igoeran parte hartzea gustatuko litzaioke, beti ere bere burua prestatua ikusten badu: «Sekulan ez dut egin Lizuniagako Igoera eta gustatuko litzaidake aurten egitea. Baina horretarako ongi entrenatu behar dut eta nere burua prest ikusi. Izan ere, hemen ez da ona edo txarra izatea: entrenatu egin behar duzu».

«ATLETISMOA HIRU HILABETEZ UTZI NUEN»

Atletismoa erabat uzteko puntuatzen izan da aurten Rafa Maritxalar, baina azkenean bere afizioak irabazi du. »Atletismoa uzteko erabakia hartu nuen, baina hiru hilabete bertzerik ez nuen aguantatu. Berriz ere txirrinta sartu zitzaidan eta entrenatzen hasi nintzen. Ilusioa hartu nuen eta entrenamendu onak egin nituen. Berriz ere, nire lehenbiziko entrenadorearekin hasi naiz, Julen Olamasurekin, eta hagitik kontent nago. Izan ere, Iruñean ongi entrenatu arren, ez nintzen sobera konforme entrenamendu batzuk planteatzeko zuten moduarekin. Bertze gisa batera ariko naiz».

▼ flash

- ❖ Osasuna futbol taldearen zaleek Peña sortuko dute Lesakan Osasuna futbol taldearen zaleek. Interesatuak Koxkilla ostatuan eman behar dute izena, mila duro utzita.
- ❖ Takolo, Pirritx eta Porrotx Otxogorrienea Guraso Elkarteak, azken urteetako udazkenetan bezala, haurrendako ekitaldia prestatuko du aurten ere. Lesakako pilotalekuan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikusikizuna izanen da azararen 5ean, arratsaldeko 5etatik aitzinera. Sarrera, 400 pezetatan salduko dira aitzinetik okindegian eta egunean berean, 500 pezetatan salduko dira. Udalak lagundu du ekitaldi hau antolatzen.
- ❖ Abesbatzakoak Sorginen Laratzara Herriko abesbatzakoek autobusa antolatu nahi dute ETBko «Sorginen Laratza» saiora joateko, ikusle gisara. Interesatuak abesbatzako kideekin egon behar dute lehenbailehen.
- ❖ Bandera espainola errea Pilarika Egunean, Espainiako bandera errea zintzilikatu zuten plazako kioskoan.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
☎ 948627573 • LESAKA

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
☎ 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

Amari denda
Bittiria 41 • ☎ 948 637518 • LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

kiskunza
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behe
LESAKA

ETXALAR

Kotxea uzteko aparkaleku berria egingen da

Burukominek segitzen dute oraindik ere postarekin

JOSEBA ETA NEREA

Etxalar herri ttikia izanik denok botatzen genuen faltan herrian bertan aparkaleku bat. Duela denboraldi bat Etxeberrigarai ondoan 8 kotxerentzako lekua egin bazuten ere, oraindik toki gehiagoren falta ikusten zen. Arazo honi soluzio bat emateko, udalak eremua bilatu nahi zuen herrian bertan. Hori lortzeko, lur-trukaketaren eskaintza egin zuen: Lizaletan, 860 metro koadro, aduanako etxea barne, herrian bertan zegoen terreno baten truke. Agirre anai-arrebak izan ziren erantzuna eman zioten bakarrak. Hauek, Iñarreta I (gizonezkoen soziedade) eta gibelego lur eremua trukatzeko prest agertu ziren. Ondorioz, udalaren eskakizuna betetzen duenez, aipatutako eskaintza onartzea erabaki da. Abudo, kotxea uzteko lekua izanen da herrian.

Posta goiti eta posta beheiti
Momentuan behin-

tzat arazoari konponbiderik ikusten ez zaienez udalak sinadurak biltzea proposatu du erreklamazioak aurkezteko. Auzoz auzo bildu dira; baserri bakoitzak firma bat emanen du martxo aitzineko zerbitzua (astean bitan posta banatzerarena) mantentzea eskatuz. Ondotik, bildutako guztiak Nafarroako posta ordezkarietan aurkeztuko dira.

Gela berria
Landagain eskolan

Escola Kontseilua lehengo urte guztia gela berri bat eskatzen egon ondotik, udalak, azkenean, adostasuna eman zuen gela hori egiteko. 140.000 pezeta kostadun gelaren erabilerak ugariak dira; logopedarentzat, orientatzailearentzat, Pedagogia Terapeutikako ardura-dunarentzat eta baita tutorentzat ere, gurasoekin solastu ahal izateko. Haurrak eskolan hasi antzinetik egin zuten gela, oraindik xehetasun batzuk falta badira ere.

Elizako arbolaren arazoa moldatu dute

Guziok ezagutzen dugu Etxalarko elizako jardinean dagoen pinu ederra. Bertatik pasatzerakoan ongi ikusten da 48 urte dituen Himalaiako zedroa. Duela denbora bat haizeak harroaldi bat eman zion arbolari, goiko punta hautsiz. Hortik aitzinera, goiti beharrean zabalera hazten joan zen. Elizako pareta hurbil dagoela jakinik argi zegoen zer gertatuko zen: pareta arraildu. Gehiagora joan baino lehen bi herritarrek, Jabier Indaburuk eta Jabier Sansiñenak, beraien borondatez pareta berritzeko lanak hartu zituzten. Aste bat inguru iraun duen lanean pareta urratu dute, zain zati batzuk moztu eta berriak hasi dute berriz ere pareta. Eskertzekoa da bi langile hauen borondatea eta lana.

Tuberia berria elizan

Ez da elizako arbolarena izan inguruak ja-



Haritza: Usategietan 16 metroko postu berria

Patxi Elizalde usazaleak erakusten digu "Haritza" postu berria. 13 urtez usategietan lanean ari den mutil honek ederki daki zer den 16 metroko postu honetara goitza! 1.941 ean egin zuten lehenengo aldiz "Haritza" postua. Hasieran haritzondo baten adarren tartean zegoen (hortik bere izena) baina denborarekin arbola zahartzen eta mugitzen joan zenez postu berria egitea erabaki zuten usazaleek. Horretarako, ondoan zegoen argindarreko poste bat erabili dute, Iberdrolari baimena eskatu ondotik. Pedro Ibarrek lagundu du irailan egin ziren obretan. Orain Axular egonen da bertan paletak botatzen. Aipatu, Behe Nafarroan altuera honetako postuak badira ere, Etxalarko usategietan dagoen altuena dela.

Argazkia: Joseba Olagarai

san duen moldaketa bakarra. Pareta moldatzen ari ziren bitartean Jagoba Irisarrik dorretik beiti datorren tuberia al-

datu du. Duela hogeita hamalau urte plastikoa paratu zuten eta orain zink-eko berriaz aldatu du Jagobak.

BEXUEN

25 metro goratzen den garabia
Kabrestantea urrutiko agintearekin

Tel: 670 974025 • 667 418661

Ioredenda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • 948 637 503 • LESAKA

LESAKA

IGANTZI

Euria egin bazuen ere, egitarau osoa bete zen bestetan

Xorroxin Irratia eskolan izanen da hilabete hondarrean

OSKAR TXOPERENA

Ez dugu zorte haundirik izan aurtengo bestetako eguraldiarekin. Bezpera eta San Miguel egunean aterria egon bazen ere, gaineko egun guzietan agertu nahi izan du euriak, goizez edo arratsalde. Halere, tartea aprobetxatuz, egitarau osoa bete ahal izan da. Ez gara hemen hasiko ekitaldi-ekitaldi dena aipatzen, baina, agian, ez litzateke gaizki etorriko zenbait gauza azpimarratzea: San Miguel eguna borobila atera zen; meza izan genuen goizez eta dantzari saio ederra arratsalde -ez gara nekatuko dantzari aritzen diren herritarren lana laudatzez-. Larunbateko herri-kirol saioa ere ikusgarria izan zen; alde batetik bertakoek -Gau-pasa eta Egun-pasa tal-



Pilota txapelketan parte hartu zuten neska-mutikoak. Arg.: Oskar Txoperena

dekoek- prestatutako apostua, eta bertetik, Loiarre zubietarrak irabazitako Nafarroako 2. mailako aizkolariaren final ederra. Ondotik bertsolariak izan genituen -ez da azken urteotan giro izugarria bertotant-. Igandea pilotaren eguna izan zen. Goizez azgatzian ageri diren 26 hurrek jokaturako

Txapelketaren finalak jokatu ziren. Txapelduinak Julen Taberna eta Aitor Begino tikienean eta Ane Sainz eta Ibai Retegi kategori nagusian izan ziren. Arratsalde afizionatuen arteko bi partidu jokatu ziren. Astelehenean herri bazkaria izan zen ekitaldi nagusia. A zer giroa bertakoa! Ia bede-

ratziak baziren Baratzondotik jendea atera orduko. Lehengoak aisa atzentzen dira, baina, horrelako giroa gutitatan izan dela erraten zuten jende guziak.

Xorroxin irratia eskolan

Udazken aldean ohi-tura bihurtu denez, igantzi-ko eskolan izanen da

Bilketa Angolarako Akautu da orain dela aste batzuk Behar Bidasoak Angolarako hasi zuen janari bilketa kanpaina. Antolatzailerik erran digutenez 2.500 kilo bildu dituzte Arantza eta Igantziren artean. Orain zonalde guzita-koak bildu eta Irundik bidaliko dira.



Xorroxin Irratia. Prestatzen ari dira dagoeneko eskolako haur eta irakasleek urriaren 30 eta 31rako eta azaroaren 2 eta 3rako iragarri dituzten irratsaioak. Zuek ere entzuter, edo, hobekiago, partehartzera animatzen bazarete, badakizue, irratia biztu eta 107,8 FM frekuentzia bila ezazue.

948631076 • BERA

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzi-ko Bentak • 948 627572 • Faxes: 948 637508

PATXIKU garraio - eskabazioak
Tel: 070 971025

BILTEGIA-SALMENTA
Moble eta Aitzinako altzariena
ALMAZENENKO PREZIOETAN
Mobleak saldu nahi badituzu guri galdetu

ZUTABE
Otxango industrialdea 7 • Tel: 948 637579
LESKA

JOSE AGERRE
PINTURA LANAK

- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotelé
- Moketa eta zintasol

610 22 15 28 • 948 637957 • IGANTZIKO BENTAK

➔ ARANTZA

Baserritarren Eguna eta Kultur Astea ekitaldiz gainezka heldu dira aurten ere

Eskolako ikasleek prestatutako «Arantza ezagutzen» jokia salduko da

ELIXABET ETA GARBINE

Urtero bezala, Ekaitza elkarteak antolatzen duen Baserritarren Eguna azaroaren lehen izan da aurten. Bertan, nahi duten herritarrek beraien baserriko produktuak, eskulanak eta bertzelakoak agertzeko postuak jartzen ahal dituzte, baina lehenagotik Herriko Etxean izena eman behar da. Eguerdian, ordubiak aldera, bazkaria izanen da Ekaitza elkartearen lehenagotik izena eman dutenentzat. Egun honetan, eskolako hirugarren zikloko haurrek egindako «Arantza ezagutzen» herriari buruzko Trivial jokia salduko dute. DBHkoek, berriaz, eurek egindako erlojuak eta gaztainak salduko dituzte.

Bertzalde, Kultura eta Euskara Batzordeak



Urtero bezala, izanen da zer ikusi Baserritarren Egunean.

Artxibokoa

azaroaren lehen aitzinera Aste Kulturala antolatuko dute. Ortziralean, azaroaren 3an, arratsaldeko 2,30etatik aitzinera haurrentzako eskulan tailerra izanen da eskolan. Gero, Guraso Elkarteak berendua prestatuko du. 6,30ak

aldera, Kollins Klown taldearen antzerki emanaldia izanen da. Larunbatean, arratseko 8etan, Lesakako Mairu antzerki taldeak bere emanaldia eskainiko du. Arratseko 11etan, Labrit kantaria ariko da gorapean. Igande eguerdian,

helduen arteko pilota desafioa jokatu da.

Etxebizitzak Medikuen etxean

Udalaren azken bantzarean medikuen etxearekin zeregin planteatu zen eta goiko pisuan bi etxebizitza egi-

ten ahal direla erran du Jokin Pastor arkitektoak. Kontuan hartuz medikuen etxea herriarena dela eta denek hartu genuela parte bere eraikuntzan, Herriko Etxeak herritar guzkiekin egon nahi du proiektuaren gorabeherak esplikatzeko. Datozen asteotan Udalak informazio bilera batera joateko deia zabalduko du.

Girizi etxola egin dute gazteek

Urriaroarekin batera mendiak ehizariz bete dira. Orain arte eguraldiak lagundu ez badu ere, hasi dira dagoeneko lehenengo usoak agertzen. Urtero bezala, etxolak ere ehizariz beteak daude, eta aurten etxola berria ere egin dute. Gazte koadrila batek borda bat berritu du, Girizi izena jarritz, Sorata inguruan.

Inungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardua' Mazoa
'Zahar antzokoa' Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGIA JATETXEA

☎ 948 634179

ARANTZA

EDARIAK

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel. - Fax: 948. 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • ☎ 948 63 02 40 • BERA

Aerobik, soinketa eta eskulan ikastaroak hasi dira

Hamekagarren kamioia erori da Iosporroa gainera

JAIONE ETA ALBA

Joan den urriaren 3an eman zioten hasiera aurtengo eskulan ikastarari. Urtero bezala, jende ugari animatu da ikastaro hau egitera, eta iaz bezala, Pui Urtasun izanen dute irakaslea. Ikastaroaren bigarren astean, irakaslearekin batera Zintronikoko fabrika batera joan ziren, aurtengo eskulanetarako behar duten materiala erostera. Astean bi egunez ematen dituzte klaseak, astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 12etara Ulibeltzak elkartean.

Aurten ere martxan hasi da aerobik ikastaroa. Urriaren 2an hasi ziren Sunbillako hamabi emakume aerobik klaseak hartzen, eta momentuz astelehen eta ortziraletan bilduko dira frontoian, arratsaldeko



Bertze kamioi bat Iosporroa baserri parean

Urriaren 9an Huelvako matrikula zuen kamioia errepidetik ateri eta Iosporroa baserri gainera erori zen. Ez da lehen aldia, lehendik ere bertze hamar kamioi ikusi baitituzte Ignacio eta Dolores Ganboa anai-arrebek. Gainera, bi gidari hiltzen ere ikusi dituzte. Azkeneko istripuan, zorionez, gidariak ez zuen zauri larririk izan. Arrigazteluko tunela egiten denean moldatuko da Iosporroakoen arazoa, baina horretarako bi urte esperatu beharko dituzte.

Arg.: Edurne Zubieta

5etatik 6etara.

Soinketa ikastaroi ere hasiera eman zaio herrian. Frontoian el-

kartzen dira astearte eta ortzegunetan 3,15etatik 4,15etara.

Frontoiak ez du atse-

denaldirik izanen aurtent, Txaruta pilota eskolakoak ere biltzen baitira astean bitan.

Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala Bordatxon egingen da

Tafallan eta Agoitzen egingen diren kanporaketan ondotik, Doneztebeko Bordatxo dantza lekuan burutuko da Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala. Saio nagusia, abenduaren 16an, arratsaldeko 4,30etan egingen da.

Aurtengoan, zortzigarren edizioa beteko du Euskal Kantu txapelketak. Bertan parte hartzeko, azaroaren 10a baino lehen eman behar da izena Nafarroako irrati ezberdinetan.

☞ GAZTELU

Sagarrondotik erori eta hil zen Kamizkobordako Martin Lazkano

Martin Lazkano Usariz, 67 urteko gazteluarra irailaren 9an hil zen sagarrondo batetik erori ondotik. Kamizkobordan bizi zen Martin eta sagarrak biltzen ari zela, eskaileratik erori eta kolpearen ondorioz hil zen. Ezkongabea zen, erretiratu zegoen eta bere afizio handiena baratza zaintzea omen zen.

GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BELARRA

 OSTATUA - JATETXEA
 Amezitia karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 45 03 06

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

 • Melamina taulak
 • Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
 • Txapaz estalitako taulak
 • Entzimerak
 • Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
 • Pintura eta bernizak
 • Bainurako mobleak eta osagarriak
 • KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
 Tel.: 948 450 133
 948 451 541
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio
 AKORDEOI eta TRIKITIXA-KLASEAK • MUSIKA LENGUAIA
 Kirolaz gain, MUSIKA ere egin ezazu
DOMIÑENEA Etxea • San Andres Karrika, 40 NARBARTE • 943 - 61 50 55 • 657 772 633

Denboraldi berria nagusi berriekin hasi du Bordatxo dantzalekuak

Joan den larunbatean hasi zen denboraldi berria

PATXI IRIARTE

Uda honetako solasgai nagusietako bat izan da Donezteben eta Maierrekan: Bordatxo dantzalekua ixteko asmoa zutela, horregatik antolatzen zirela Doneztebeko besta ttikiak... Berri horrek kezka ere sortu zuen hainbat eta hainbat Bordatxozaileen artean. Azkenean, ordea, aurtengo neguko asteburuetan ere izanen da Bordatxoko goxotasunera sartzeko modurik. Nagusi berriak ditu dantzalekuak eta larunbat honetan zabaldu ditu atek.

Kiroldegi berria, garaipen segurua

«Entrenatzaile berria, garaipen segurua» dio kirol munduko erran zaharrak. Errekako eskubalo talde nagusian Txomin Mindegiak segitzen du entrenatzaile lanean, baina aurtengo ligan kiroldegi berria estreinatu dute Erreka-koek. Lehen partidua ez zen ona izan, baina 16 eta 14 irabazi zioten doneztebarrek Arnedoko



Larunbatean hasi den Bordatxo dantzalekua-
ren denboraldi berria. Aurten ere ikusiko
dugu jendea dantzan.

Artxibokoa

Callahan taldeari. Bertze taldeak ere hasiak dira edo laster hasiko dira denboraldi honetan. Nesketan, infantilak eta kadeteak ariko dira eta mutikoetan, infantilak eta jubenilak.

Doneztebeko eta Elgorriagako medikuaren agurra Kontxi Sanchez Vazquez, oposizioak gainditu ondotik azken lau urte eta erdi hauetan Doneztebeko Osa-

sun Zentroan Famili mediku izan denak eskutitz agurra igorri du TTIPITAPARA. Bertan, «lanpostua uztera behartua izan naizela eta ordez, erdaldun zonaldeko lanpostu bat aukeratu behar izan dudala» dio. Kontxi Sanchezek jakinarazi duenez, «Osa-sumbideak oraindik bere lanpostuetan behar diren euskara perfilak erabaki ez dituenetz, Hizkuntz Politikako Zuzendaritzak nik oraindik ez dudana EGA maila eskatu digu euskaldun lanpostuetarako. Dena den, nire euskara maila altua dela eta hobetzen jarraitzeko asmoa dudala kontuan hartuz, aipatutako maila lortzea espero dut».

Kontxik izandako konfidantza eta tratua eskertuz akitzen du oharra: «Oso gustora bizi izan naiz eta oso gustora egin dut lana hemen. lanpostu honetara etorri den medikuak zuekin lan polita eginen duela eta ni bezain pozik egonen dela ziur nago».

Errenta aitortpenean etxekoren bat zaintzeagatik desgrabatzeo aukera

Eskualdeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi dute, joan den urtean, Nafarroako Haziendak Errenta Aitorpena egiteko orduan desgrabatzeo aukera eman zuen etxeko adinturen bat zaintzeagatik. Beraz, interesatuek, hori azaltzen duen agiri bat aurkeztu behar dute.

Agiri hori eskatzeko bi baldintza bete behar dira: etxean 65 urte baino gehiago duen adinturen bat izatea, eta adintu horrek, bere kabuz moldatzeko gauza ez izanik, bertze baten laguntza osoa behar badu etxekoek agiri hau eskuratzen ahal dute. Bada, biek, zaintzaileak eta adintuak, etxe berean bizi, eta batak bertzearen ardura osoa izan behar du.

Desgrabazioaz aprobetxatzeko agiria adintuak edo bere bikoteak aurkeztu behar dute, Errenta Aitorpena egiten badute. Bertzenaz, zaintzaileak edo bere bikoteak, haiei tokatzen bazaie egitea.

Egiaztagiria eskuratzeko, azaroa baino lehen joan behar da norbere herriko Gizarte Zerbitzuetara eta gizarte langileari eskatu desgrabatzeo zertifikatua. Honek eskaera Iruñera bidaliko du. Handik gutxira, Iruñeko inspektore bat agertuko da etxean adintuaren egoera egiaztatzen. Tramite hori egin eta gero, agiri ofiziala emanen du, heldu den urteko errenta aitortpenarekin batera aurkezteko.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91



Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak
Tel: 948.599.055

ARMAIRUAK

ATEAK

LEIHOAK

SOLAIRUAK

MAHAIK

LOGELAK

TALLAK



Igor Elizegi

Tel-Fax: 948 514 345

Mug.: 646 056 163

GOIZUETA

➔ GOIZUETA-ARANO

'Zabala y Goikoetxea' eraikuntza enpresak konponduko du Goizuetako Herriko Etxea

Bestalde, bi herrietako kotoak legeztatu dituzte dagoeneko

ESTEBAN AROTZENA

Urriaren 11n udalbatzak hartutako erabakiaren arabera, Zabala y Goikoetxea eraikuntza enpresak hartu du bere gain Herriko Etxea konpontzeko lana.

Bi eskaintza zeuden pleno aretoko mahai gainean, aipatutakoa eta Construcciones Jose Zerainena.

Lanak bukatzeko epea berdina zuten biek: hiru hilabetekoa. Eskaintza ekonomikoan zegoen aldea, Zabala y Goikoetxearena 38.205.724 pezetakoa zen bitartean, 38.512.185 pezetakoa baitzen Zerainena. Honen aurrean, udalbatzak herriko enpresa honi lanak ematea erabaki zuen inolako zalantzarik gabe.



38 milioiko aurrekontua dute Herriko Etxea moldatzeko lanek.

Goizueta eta Aranoko kotoak legeztatu dira

Denboraldia bere momentu onenera ailegatzearekin batera, hagitx berri onak jaso dituzte bi herrietako ehiztariak. Hurrengo bost

urtetako ehiza-barrutia legeztatzen duen araudia onartu baitute dagoeneko Nafarroako Gobernuak eta Udalek.

Gauza jakina den bezala, Goizueta eta Arano koto berean egon dira azken urteetan. Ezagu-

nak dira, baita ere, horren ondorioz sortu diren gorabeherak. Kontuak kontu, bakoitza bere aldetik joateko erabakia hartu zuten ehiztariak bere momentuan, eta orain Nafarroako Gobernuak onartu egin

du eskari hori, legeak agintzen dituen neurriak (2.000 Hektarea) ez baiditu ere Aranoko kotoak. Neurria aipatu den bezala, esan Goizuetako ehiza-barrutia 5.481 Hektareakoa izanen dela eta 1.324koa Aranokoa. Ehiza barra-barra sortzea besterik ez da falta orain.

Lorentxon Bordako bidea zolaberrituko da Aranon

Aranoko berriekin segituz, esan hurrengo hilabeteetan Lorentxon Bordako bidea zolaberritzeko asmotan dela Udala.

Arola-Sagargazte izeneko proiektu honek zortzi milioi pezetako dirulaguntza izango duenaren hitza eman diote korporazioari Nafarroako Gobernuan.

➔ ARESO

Ehiza postu berriak egiteko baimena eman dute

Lehen ezkontza zibila egin da Udaletxean

JUANA MARI SAIZAR

Udazkeneko kontuak aipatzen hasiko gara eta gaia ehiza da. Nafarroako Gobernuak hiru ehiza postu berriak egiteko baimena eman du, 24, 25 eta 26 zenbakia dutenak hain zuzen. Enkante egunean jende ugari hurbildu

zen. Ehiza postuak baino jende gehiago zegoen, beraz, batzuk esku hutsik joan omen dira. 3.400.000 pezetako dirutza utzi dute aurten postuek.

Kontu programak Udal ordenagailuan Udaletxeko ordenagailua martxan jartzen

hasi dira. Kontabilidate eta kontuen programak sartu dituzte.

Lehen ezkontza zibila Areson

Urriaren 14an, Bittor Herrero eta Amaia Reiriren ezkontza zibila ospatu zen. Gisa honetako lehendabiziko ezkontza da Areson.



Putreak Astomela inguruan Leitzarango autobidearen parean, Astomelako zubiaren inguruan ehundaka putre bildu ziren duela pare bat aste. Badirudi hildako animaliren bat bazegoela inguruan, baina bizilagun batzuk beste egun batzuetan ere hegaztiak ikusi dituztela esan dute. Diario de Noticias



Santa Engrazi-Belagua ibilaldia antolatu du Mendibil mendi taldeak urriaren 29rako Mendibil mendi taldeak irteera bat antolatu du urriaren 29rako. Oraingoan Santa Engrazi-Belagua ibilbidea egingen da. Izena emateko epea 26a artekoa da -liburudendetan-. Argazkietan, Mendibil mendi taldeak Bardeetara antolatutako irteera. Hilaren 27an berriz, arratsaldeko 8etan, Iñaki Kanpionek "Hegoamerika -eskaldada, mendia,..." izenburuko diapositiba emanaldia eskainiko du, hau ere Mendibil mendi taldeak antolatuta.

Argazkiak: Mikel Ilarregi

Ipuingintza ikastaroa antolatu du Leitzako Euskara Zerbitzuak

Zinemaren denboraldia larunbatean zabalduko da

JOSEBA AZPIROZ

Ipuinak irakurtzea eta idaztea gustatzen bazaizu, Leitzako Euskara Zerbitzuak antolatutako ikastaro laburrean parte hartuz ipuingintza ezagutzen hasteko aukera daukazu. Hamar orduko iraupena izan den ikastaroaren irakaslea Juanjo Olasagarre idazlea izan da. Lau saiotan banatuko da eta astez izan da -taldeak erabakiko du eguna eta ordua-. Urriaren bukaeran eta azaroan zehar eskainiko den ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea urriaren 20an

bukatuko da -Maimur eta Astiz liburudendetan-. Matrikulagatik 1.500 pezeta ordaindu beharko dira. Ikastaroa egiteko gutxienez sei pertsona beharko dira eta gehienez hamasei.

Zinema denboraldia larunbat honetan hasiko da

Urriaren 20an hasiko da zinemako denboraldi berria «*Man on the moon*» pelikularekin. Datorren denboraldi honetan pelikulak ostiralean, 10,30etan eta igandean 7,30etan eskainiko dira. Beraz, larunbateko saioa kendu egingen dute. Hurrengo

asteburuetan «*Inocencia interrumpida*», «*Trabajos de amor perdidos*» eta «*Evasión en la granja*» pelikulak ikusi ahal izanen ditugu.

Norbere burua estimatzeko eta lasaitze ikastaroak

Azkeneko bost urtetan yoga ikastaroak antolatu dituen Sanatana Dharma elkarteak eskaintza zabaldu egin du aurtengoan. Hiru hilabetez, lasaitze, osasun fisiko, autoestima eta pentsamendu baikorren ikastaroa egingen da hiru hilabete terdiz. Haurtzaindegian ema-

nen da ikastaroa, arratsaldeko 5etatik 7etara. Ikastaroaren kostea 15.000 pezetakoa da. Udalak dirulaguntza emanen du.

Argazkigintza ikastaroa

Mendia eta natura argazkigintza ikastaroa antolatu du Mendibil mendi taldeak. Urriaren bukaeran eta azaroan zehar bi orduko hiru edo lau saio egingen dira, denak ere astez, taldeak erabakitako egun eta orduan. Izena emateko epea hilaren 20a artekoa da -liburudendetan- eta matrikula 1.500 pta. kobratuko dute.

Pestetako balorazio baikorra

Udalak irailean egindako batzarrean pestetako balorazioa egin zuen. Aurten 9.740.282 pezeta gastatu dira. Oso balorazio ona egin dute ekitaldi guztietan izan den parte hartzeaz. Aurtengo berrikuntzetaz balorazio ezberdinak egin zituzten: iluntzeko musika, suzko zezena, bizi triala, koardilen bazkaria, baikor baloratu baziren ere, ez zen berdin gertatu patata tortila lehiaketarekin, jotoeren saioarekin edo gaueko ingurutoarekin. Abuztuaren 13ko entzierroa eta txirridulari frogaz ez egiteko arrazoi nagusia segurtasun falta izan zen. Barrerak ixterik ez zegoen, jendea ez zen ibilbidetik baztertzen...

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTASKE
JAIMES LEBERTIA, 24
7º FD. 04002
ELIZONDO
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
948 599 131 - URDAZUBI

➔ BAZTAN

Iruritako mediku kontsulta berria zabaldu zen urriaren 3an

Kontseilariak osasun zerbitzuen egoera eta premiak aztertu zituen

TTIPI-TTAPA

Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak bisita egin zuen urriaren 3an Elizondoko Oinarritzko Osasun Zonalde-
ra. Nafarroako bertze eskualdetan bezala, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko osasun egoera eta eskari nagusien berri izan zuen kontseilariak. Gainera, Irurita, Gartzain eta Lekarozko bizilagunei zerbitzua eskainiko dien Iruritako mediku kontsulta berria inauguratzeko aprobetxatu zuten. Kontsulta berri honek zaharkitua zegoen Gartzaingoa ordezkatuko du. Iruritako pilota plaza ondoan dagoen kontsultak 17 milioiko aurrekontua izan du eta ekipamendu gastuetan 2,2 milioi joan dira. Osasunbideak ordaindu du oso-osorik. 110 metro koadro ditu eta honeko instalazio hauek: medikuntza orokorreko kontsulta, erizaintza kontsulta, administrazio-aretoa, itxarongela, biltegia eta ko-



Itxura ederra du Iruritako mediku kontsulta berriak.

Argazkia: Karmele

munak. Jose Pedro Mendioroz, Gartzain eta Lekarozko apezak be-
deinkatu zuen kontsulta berria.

Anbulantzia medikalizatua eta larrialdietarako helikopteroa

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko alkateek egindako eskari nagusien artean, ambulantzia medikalizatuarena zegoen. Patxi Oiartzabal Baztango alkateak zio-

enez, «*bide arras luze-
ak egin behar dira, Zugarramurditik Iruñera adibidez, eta ambulantzia hori premiazkoa da*». Larrialdietarako helikoptero baten beharra ere azaldu zen. «*Nafarroako Gobernuarena erabiltzeko aukera aipatu dugu, baina erantzunaren zain gaudela*».

Elizondoko Oinarritzko Osasun zonaldeak 458 milioi pezetako aurrekontua du aurten.

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko 7.480 bizilagun atenditzen ditu. Oinarritzko Osasun Laguntza taldea, Emakumeen Laguntza taldea eta Adimen Osasunerako taldea ditu. Zonalde honetako ezauzgarri nagusietako bat, jendearen adin altua da. 65 urtetik goitikoa da populazioaren %21,5 (Nafarroan %17). Urteko lehen sei hilabetetan 29.528 kontsulta atenditu dira.

▼ flash

❖ 7.786 bizilagun 1999ko ilbeltzaren lean egindako azken erroldaren arabera, 7.786 bizilagun ditu Baztanek, horietatik 3.970 gizasemeak eta 3.816 emakumeak.

❖ Konzentrazio ixila Andaluziako Justizi Auzitegi nagusiaren fiskal burua zen Luis Portero jaunaren hilketa dela eta, Baztango alkateak konzentrazio ixila egiteko deialdia luzatu zuen urriaren 10ean, eguerdiko 12etan Balleko Etxearen aitzinean.

❖ Jose Migel Gaztelu aitaren hiletan Jose Miguel Gaztelu Otxandorena preso politikoa bere aitaren hileta elizkizunean izan zen urriaren 10ean. Erran beharrik ez da, segurtasun neurri ikaragarriak izan zirela Santiago parrokia inguruan. Guardiazibilak ikusten ziren nonahi, baita eliza barnean ere, Jose Migel eskuak lotuak zituela ekarri zuten eta elizkizuna akitu bezain abudo, berriz ere kartzelara eramane zuten.

 **Gierreserena**
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

 **BAZTANDARRA**
KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - Faxes: 948 453375
Ordoki Auzoa • **ARIZKUN**

ORDOKI *likoreak*
Tel.: 948453410 ERRETEGIA
Fax: 948453378 Parrilan egindako haragi eta arrainak
ARIZKUN


SOULE
Hileta artea
☎ 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

BAZTAN

Larreak erretzeko baimenak lehenbailehen eskatu behar dira

Eskabideak egiteko epea martxoaren 15a arte zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren Foru Agindu batek arautzen du erreketak kontrolatuak egiteko baimenak eskuratzeko tramitea. Foru Agindu hori negu aitzin argitaratu dute baina iduri du joan den urtekoaren beretsua izanzen dela.

Eskabidea, mendi zaindariaren bulegoan aurkeztu behar da, Elizondon, Santiago karrikaren 55ean, behean, albaiteroen ondoan. Gero, tokiari dagokion mendi zaindaria edo mendi zaindarioa erre nahi den tokia ikusterre joan da eta, azkenik, Ingurugiro Departamenduak baimena emanen du.

Eskabideak egiteko epea martxoaren 15a arte zabalik badago ere, hobe da eskabideak urrian eta azaroan egitea, eskabide guzientzako



Beartzungo zabortegia ixtea agindu dute Iruñetik Beartzungo errepidean dagoen zabortegia bi hilabeteren buruan ixtea eta garbitzea eskatu dio Ingurumen Zuzendari Nagusiak Balleko Udalarari, Guardia Zibilak egindako denuntziari erantzunez. Argazkia: Asier

ko epea apirilaren 15ean akituko baita. Erran nahi baita, eskaera zenbat eta lehenago egin, orduan eta denbora gehiago izanen da erretzeko.

Tramitea arintzeko, eskatzaileendako aise-

ago egiteko eta erreketak kontrolatuak bulkatzeko, herrietako alkateen laguntza ezinbertzekoa izanen da. Herriko alkateek, nork bere eskabide guziak bildu eta mendi zaindariaren

bulegoan aurkeztuko dituzte.

Bulegoaren jendearendako ordutegia goizteko 7,30etatik 8,30ak biztartekoa da. Ordu tarte horretan joatea ezinezkoa balitzaizu, deitu 608 25 18

Personaiak

Iribarrego bordako Simon, okina Txilen

Simon Etxenike urdazubiarra 1952an gan zen Txilerat Iribarrego borda baserria utzita. Hamahiru haurride zirenez, ezin guziak mantendu. «Orduan lan guti zen han. Mexikora gan nahi nuen baina ez nuen pasajerik lortu eta Txilera etorri nintzen». Garai gogorak ziren haiek: «19 urterekin atera nintzen eta barkuan bidaiatzen hilabetea pasa eta gero, Argentina eta Txile arteko mugan utzi ninduten bakarrik negu gorrian eta nolabait iritsi nintzen Santiagora». Baztan ingurutik gan ziren gehienak bezalaxe okindegia du. Elizondoko Mari Kruz Istilartekin ezkondu eta semea eta bi hiloba ditu. Urdazubira urtero bisita egiten badu ere, ez du hemen gelditzeko asmorik: «Gelditzeko ez. Txilen ditugu negozioa, semea eta ttarrak hemen dire eta etxeak ere. Gu ez gara aterako harat. Semea guzirekin aritzen da eta arras gustora gaude Txilen».

Gauza bakoitza

bere lekuan

Erabil itzazu
beira eta
pila edukiontziak

BAZTANGO UDALAK

Zaborrak banatzeko kontzientziatze kanpaina hasi du Baztango Udalak

Baztango Udaleko Ekologia, Ingurumen eta Hiri-Hondakinen Batzorde Informatzaile Iraunkorrak kontzientziatze kanpaina prestatu du Baztango herrietan paratu berri diren beira eta pila-edukiontzien erabilera ezagutarazteko. Kontzientziatze kanpaina horren barnean,

«Gauza bakoitza bere lekuan» izeneko argitalpen txoa prestatu dute eta baztandar guzietan banatu zaie, beirazko hondakinak eta pilak dagozkien edukiontzietan botatzearen garrantziaz ohartarazi eta ingurugiroa zaintzeko ohituren aitzinean sentibera daitzen.



Simon ETXENIKE eta Mari Kruz ISTILART

Herriko erretiratuek Baxe Nafarroa bisitatu zuten buruilarren 27an

Sarako gau Eskola lanean hasia da urria hastapenean


ANA MARI ETA FRED

Buruilarren 27an, asteazkenarekin, 75 lagunek parte hartu zuten Herriko Etxeak antolatutako ateraldian, gonbidapena herrian bizi diren erretiratu guzietatik zabaldua izanik.

Goizean, plazatik bi autobus abiatu ziren baxe Nafarroako bidea hartuz. Lehen geldialdia Donibane Garazin egin zuten eta hortik lekora Ahatsen den Iratiko arrain haztegia bisitatu zuten. Gero, Donazaharreko Mendi ostatuan aperitifia hartu eta zintzur bustitzearen ondoren geldialdi luzeagoa egin zuten, Esterenzubin bazkaltzeko. Baxe Nafarroan barna egin dako bidai honek arrakasta handia izan zuen. Parte hartu duten guzietatik seguraski prest direla holakoak maizago egiteko!

Sarako Gau Eskola

Bertze urtetan bezala, Sarako Gau Eskola lanean hasia da urria hastapenean. Desberdintasun handiena da aurten klase bat baizik ez dela izanen. Alabainan, ikaslegai batzuk baziren bertze maila bazueta klaseen hartzeko, baina aski ez zirenez, Donibane Lohizunerat joan behar izan dute. Aipatu behar da Christine Sorhouet saratar gaztea dela klase bakar horretaz arduratuko. Bertzalde, oroitarazten daukute Korrika izanen dela aurten, eta mementuz Saratik pasatu



Joan den urtean Saran ospatu zen AEK Eguna.

tuko denez ez baldin badakigu ere, segur Baionara ailegatuko dela.

Gehiago dena, aurtengo AEK Eguna azaroaren 5ean ospatuko da Lizarran (Nafarroa) eta baliteke Saratik autobus bat muntatzea harat joteko. Segur atsegin handia hartuko dutela iaz Sarako AEK Egunean lanean aritu zirenek, oraingoan egun hori arrunt bertze manera batez gozatzeko parada izanen baitute.

Zikinak biltzeko ordain saria

Urtetik urtera, zikinak biltzeko eta baliatzeke ordain saria merkeago da gure herrian. Alabainan, herri arteko sindikatan, Sarako herriaren parte 737.257 Liberatik 697.139 etarat jautsi da. Ondorioz, herriarrek 780 Libera partatzeko partez 750 libera ordaintzea deliberratu du Herriko Kontseiluak. 1998. urteaz ge-

rozitik ehuneko zortzia merketu da ordain saria. Bertze inposak egin berean jausten baldin baziren gaitzerdi!

Surako egurra

Negua hurbiltzen ari zaigu eta lehenbiziko hotzekin gure etxeetako suak pixteko garaia dugu. Surako behar den egurra herriaren eskutik erosten ahal da. Interesatuak direnak izenak eman behar dituzte Herriko Etxean ondoko asteetan. Urtero bezala, eguberri aitzineko igandean bakoitzak joan behar du bere egur lota xortean ateratzeko.

Errugbia

Hil hunen hastapenean Sarako Izarra errugbi elkarteak bere sasoina hasi du. Lehenbiziko partidua Animaineko zelaian jokatu zen urriaren lehenean Azkainen kontra. Herriko bi taldeak garaile atera ziren, baina ez zuten

emaitza nolanahi lortu, zortzi kolpaturekin finitu baitzuten igande arratsaldea. Lehen taldeak 18-16 gaintu zituen azkaingarrak. Erreserbak, aldiz, alde handiarekin menperatu zituen kontrarioak, 20 eta 5 irabaziz.

Ondoko igandean, partidua kanpoan jokatu zuten saratarrek, Saint Martin de Seignaux, Landetan, hain zuzen ere. Aldi huntan, baka-rik lehenbiziko taldeak jokatu zuen jokalaria eskasarengaitik. Emaitza: 42 eta 9 landestarraren alde.

Hurrengo bi partidok Saran jokatu dira Landesetako bertze bi talderen aurka: Saint Pierre du Mont eta Lit et Mix. Agian, lehen igandeko indarrak berreskuratu dituzte saratarrek. Dena den, urtero bezala galdu edo irabazi, urriaren 22an xerri ttikia afaltzeko eguna finkatua dute.

Irratia zabaldu nahi du Ziburuko Kolegioak

Urte askotan Seasakako ikastolen bigarren mailako hezkuntza Kanboko Xalbador Kolegioan baino ez da irakatsi, baina 98-99 ikasturtean ikasle kopuru handia zela eta, bigarren kolegio bat Ziburun zabaltzea erabaki zen. Kolegio berriaren baldintza ekonomikoak ez dira onak eta, gainera, inbertsio ugari egin behar dira. Kolegioaren hirugarren urte honetan, ikasleek euskararen erabilera sustatzeko eta bere hezkuntza osatzeko hainbat jardura pedagogiko abian jarri nahi dute, hauen artean KaskaRok Irratia. 8.150 Liberako aurrekontua du proiektu honek eta laguntza eskatu dute, irratirako behar den materiala eskuratzeko. «Gure proiektua materialortzean gauzatuko da, aurtengo aurrekontuetan ez baitzen holarikorik pentsatu».



SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen
 Benta Biok-en,
 Benta Mirentxuren
 ondoan
 ☎ 0034948630424

SENPERE

Herriko orga Lapurtarren Biltzarrean

Euskal Telebista ez dela ongi ikusten salatu zuen

FRANCK DOLOSOR

Irailaren lehenean, Sanoki eta Oxtikenea elkarteek Uztaritzeko Lapurtarren Biltzarreko karro desfilean parte hartu zuten. Ikusiz Euskal Telebista ez dela oraino Senpereko etxe guzietan ikusten ahal, bi taldeek deliberatu zuten gai hau salatzea goizko 11etan izan zen karro desfilean.

Orgaren gainean bi telebista ezarri zituzten gazteek, bat irudi argiarekin frantses telebistarena eta bertzea irudi ilunarekin, ETBrena. Horren gibelean Larrumendia ageri zen, antena bi telebisteri lotua zelarik. Aintzin aintzinean, hori guzia laburtzen zuen banderola ageri zen, «Senperen denentzat Euskal Telebista noizko» lemarekin.

Erreferenduma


Jende gutti bildu zuen «Quinquenat»-ri

buruzko erreferendumak. Frantses errepublikako presidentaren agintaldia 7 urtetatik 5erat murriztea deliberatu zen, Senperen ere baiezkoa nagusitu zelarik.

3.104 boz emailetatik 446 baiaren alde, 136 ezetz eta 283 xuri, hauetarik 157k (%18,65ak) euskararen ofizialtasuna eta euskal departamendua sortzea galdegiten zuten.

Mus txapelketa Oxtikenian

Irailaren 24an, igandearekin, mus txapelketa iragan zen Oxtikenian. Parte hartzaile bakoitzak zerbait irabaz zezan, Senpereko komertsanteen itzulia egin ginuen. Denak arras ongi errezibitu gintuzten eta haien esker ona eta parte hartzeari esker arras ongi iragan zen Oxtikeniako mus txapelketa. Bera, milesker haundi



Goitia, Ibarungo pilota txapelketako finala 1997an. Beheitian, aintzira, aurten ere turista aunitzen pausaleku.

bat Senpereko komertsanta guziei.

Ibarungo bestak Urtero bezala, aurten ere

Ibarungo festak udako azkenak izan dira ainitzentzat; zoritxarrez ikastola garaia ere ailegatu baita.

Animazio ainitz izan da besta hauetan: Rock kontzertua, kantaldia eta fandango txapelketa, besteak beste. Azken hunetan, 14 urte arteko gazteetan zortzi bikotek parte hartu zuten. Haundietan, aldiz, hasieran hiru bikote baidarik ez ziren aurkeztu eta, poliki-poliki, Sébastien animatzaileari esker, bikote bat baino gehiago hurbildu zen plazara. Lehen saria Joana Haranburu senperrak eta Gorka Arizaga azkaindarrak eraman zuten. Zorionak eta heldu den urte arte!

Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa *Kidetza berri bat!*
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209

EZKONTZAK

Juan Jose Feliciano Urbizu Garin eta **Gema Perez Pou**, Gazolazekoak Elizondon, irailaren 23an.

Oscar Perez Silanes eta **Maria Elena Galbete Goiena**, Iruñekoak Zigan, irailaren 30ean.

Jose Joaquin Saizar Telletxea eta **Igone Goikoetxea Uzkudun**, Areso eta Elduaiengoak, urriaren 7an.

Juan Carlos Garrido Rodriguez eta **Maria Isabel Sagastibeltza Bengoetxea**, Donostia eta Leitzakoa, irailaren 30ean.

Jêrome Irazabal eta **Sandrine Pelat**, Sarakoak, buruilaren 20an.

Miguel Etxarri Imaz eta **Ana Isabel Aizkorbe Zabaleta**, Donostiakoa eta Goizuetakoa, irailaren 30ean.

JAIOTZAK

Alexander Santesteban Opoka, Iruritikoa, irailaren 15ean.

Ion Jaurena Irisarri, Arizkungoa, irailaren 21ean.

Silvia Ursuegi Agirre, Zigakoa, urriaren 4ean.

Kévin Onchalo, Sarakoa, buruilaren 27an.

Aitzol Perurena Erro, Goizuetakoa, irailaren 21ean.

Alazne Aizpuru Iriarte, Nartartekoa, irailaren 16an.

Ane Bereau Etxeberria, Arantzakoa, irailaren 28an.

Maiana Sein Arburua, Igantzakoa, urriaren 4ean.

HERIOTZAK

Maria Pilar de Lama Martinez de Sojo, Elizondon, irailaren 28an, 91 urte.

Juana Bautista Treku Zubiri, Aresokoa, irailaren 30ean, 95 urte.

Martin Lazkano Ustariz, Gaztelukoa, urriaren 9an, 67 urte.

Santiago Zunda, Sarakoa, urriaren 2an, 72 urte.

Gaxuxa Hauziarze, Sarakoa, urriaren 4an, 84 urte.

Justo Martirena Legazkue, Legasakoa, irailaren 28an, 64 urte.

Tomas Gonzalez Ezpeleta, Arantzakoa, irailaren 30ean, 62 urte.

Maritxu Sarratea, Urdazubikoa, urriaren 10ean, 82 urte.

Maria Errazkin Otxoteko, Lesakakoa, urriaren 3an, 85 urte.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutzak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Bezitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

H. Lopez

iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

DATUAK.....

1 Jose Antonio Loiar- te zubietarrak Nafarroako bigarren mailako aizkolarien txapela jantzi zuen irailaren 30ean Igantzin egindako saioan.

2 Joanemaria etxeko semea, duela 38 urte jaio zen. Berandu hasi zen aizkora munduan, 27 urterekin. Udan Saralegitarrekin erakustaldietan ibiltzen da.

3 Egurketari lanean aritzen da kamioiarekin mendian eta horrek ez dio entrenatzen aritzeko asti gehiegi uzten: «Badakizu, hor goizean lanera joan eta arratsa arte ez zara bueltatzen etxera. Denbora gutxi gelditzen da».

TESTUA:
AITOR AROTZENA
ARGAZKIA:
OSKAR TXOPERENA

✎ Jose Antonio LOIARTE *Zubietako aizkolaria*

“Lehen mailako bizpahirurekin borrokatzeko modua ikusten dut”

Jaun eta jabe izan da Jose Antonio Loiar- te zubietarra Na- farroako bigarren maila- ko txapelketan. Uhart- Iruñan egindako kan- poraketan aisa gailen- du zen eta bertze horren- bertze egin zuen Igan- tziko finalean. 15 minu- tu eta segundu bakarra behar izan zituen bi ka- naerdiko, bi 60 ontza- ko eta 72 ontzako en- bor bat mozteko, biga- rren izan zen Etxarri- Aranazko Erdoziak bai- no minutu eta 46 segun- du guttiago. Ziordiko Flores, Arostegiko Ma- nuel Kañamares eta Pa- txi Larretxea arantz- rarak osatu zuten finale- ko boskotea. «Bigarren mailan nahiko aisa arit- zen naiz, gero lehen mailan izaten dira kon- tuak, hori haundixkoa da neretzat. Tarteko bat beharko litzateke» dio umoretsu Loiar- tek. Izan ere, lehendik probatua du lehen maila, lau bat urtez aritu baitzen. Orain bi urte galdu zuen kategoria eta orain po- zik dago, berriz ere be- rreskuratu duelako.

«ONGI PRESTATUZ, MAILA MANTENTZEN AHAL DUT»


Lehenbiziko maila ona dagoela uste du zu- bietarrak. «Mindegia, Larretxea eta puntako denak hor daude. Ongi banintzake bi edo hiru-

rekin borroka pixko bat egiteko modua ikusten dut. Lehen ere manten- du nuen urte askoz ka- tegoria... Urteak gora doazi, baina pixko bat preparatu eta zure gor- putza ongi ikusiz gero, maila mantentzen ahal da, baina zaila izanen da». 40 urteak hurbil izanda ere, ez dirudi ho- ri aizkora txarra denik, aizkolarien adinak iku- sirik. «Gaztedirik ez da ari aizkora, kirol ga- restia da eta etorkizu- nik ez da ikusten. Diru pixko bat ikustekotan udako erakustaldietan aritu behar duzu. Gaur- ko gazteek ez dute ho- rrenbeste sufritu nahi».

Denborarekin aizko- rarako ezaugarriak al- datu egin zaizkio Loiar- teri. «Lehen gehiago preparatzen nintzen eta lan luzeetan ongi mane- jatzen nintzen. Orain denbora gutxi dut en- trenatzeko eta fisikoki puntua ez dut ongi har- tzen. Igantzikoa beza- lako lan motzetan hobe aritzen naiz».

Aizkolaria gustokoe- na Mindegia du Loiar- tek: «Estiloz politena eta gaur egun puntan dagoena bera da. Tekni- ka eta burua, denak dauzki. Latasa ere eza- gutu nuen eta ona zen, baina Mindegiak 51 ur- terekin hor segitzen du, ez du akabailarikan».

► “Gaztedirik ez da ari aizkora, kirol garestia da eta etorkizunik ez da ikusten. Dirua ikustekotan udako erakustaldietan aritu behar zara eta gazteek ez dute sufritu nahi.”



Dena den Euskal Herri- ko finalerako Olasagasti du faborito. «Beti be- zala Olasagasti aurre- an izango da. Minde- giak bere lana eginen du, baina ez dut uste ira- bazteko modua izango duenik, lehen zuen az- ken sprint hori falta

«Mindegia da estilo po- litena duen aizkolaria. Teknika eta burua dauz- ki».

zaio. Eta kontuz Larre- txearrekin! Udako era- kustaldietan ikusi dut eta sasoia hartzen joan da».

Txaruta pilota elkarteak Euskal Herriko Herriarteko txapelketa eskuratu du

- Finalean hiru partidetatik bi irabazi zition Arabako Donemiliagari (San Millan)
- Nafarroako txapelketa ere irabazi dute Baztan eta Malerrekako pilotariek

TTIPI-TTAPA

Baztan eta Malerrekako pilotari gazteak biltzen dituen Txaruta pilota elkarteak Euskal Herriko herriarteko pilota txapelketaren finala irabazi zuen San Miguel egunean Bergaran, Arabako Donemiliaga (San Millán) taldearen aurka. Jakina denez, Txarutakoek Nafarroako Herriarteko txapelketaren finala irabazi zioten Lizarrari. Honela, Euskal Herriko txapelketari ekin zioten eta finalerdian, Gipuzkoako Hernani kanporatu zuten. Irailaren 29an Bergaran burututako finalean, kadeteek jokatu beharreko partida zen erabakigarria, gazteetan nafarrek eta handietan arabarrek irabaziko zutela nahiko nabarmen baitzen aitzinetik. Kadetetan, Unai Arraztoa elizondarrak eta Xanti Arraztoa iruritarrek 22 eta 8 irabazi zieten Gevara eta Resanori. Emaitzak bertelakorik erakusten ba-



Nafarroa eta Euskal Herriko Herriarteko txapelketetaz gain, bertze hainbat sari lortu dituzte Txaruta taldekoek. Argazkian, Zizurren. Artxibokoa

du ere, partida gogorra izan zen eta ordubete baino gehiagoko lehia izan zuten. Gazteetan, Josu Baleztena eratsundarrak eta Toni Uhart amaiurtarrak 22 eta 2 irabazi zieten Vicente eta Alvarez, gaurko egunean, adin honetan dagoen bikoterik onenetakoa dela erakutsiz. Bi pilotari hauek Otdiako Santo Kristo txapelketa aisa irabazi zuten eta Euskadiko ligan ere txapeldun suertatu dira. Josu Baleztena eratsundarrak Aspe enpresarekin aurrekontratua ere egina du.

Beraz, bigarren partidu honekin Euskal Herriko txapela segurtatua zuten Txarutakoek. Handietan, Iñigo Altzugarai almandoztarrak eta Iñaki Esku-

dero eratsundarrak (azken hau adinez jubenila da oraindik) 7 eta 22 galdu zuten Mikel eta Casadoren kontra. Juanjo Atxa, Txarutako arduraduna gustora dago aurten pilotarietako emaitzeekin eta oraindik jokoan dituzten txapelketa ezberdinetan garaipen gehiago eskuratzea espero du.

Irurita txapeldun Baztan-Errekako gazteen laxoa txapelketan

Pilarika Egunean jokatu zen Oizko plazan gazteen laxoa txapelketaren finala. Baztango bi talde izan ziren finalean: Arraioz eta Irurita A. Iruritik 9 eta 3 irabazi zion Arraiozi, batez ere Gorka Urtasunek sakean erakutsitako trebetasunari esker. Honela, joan den

urtean lortutako txapelari eutsi zioten. Arraioztarrak ez ziren ongi egokitu Oizko plaza berexira eta ez zuten txapelketan erakutsitako joku ederra plazaratzerik izan. Talde txapeldunean Gorka Urtasun, Haritz Arraztoa, Joxe Mari Salaburu eta Borja Jaimerena ari-

tu ziren. Arraioztarrek, Xabier Bengoetxea, Xabier Mihura, Asier Zubigarai eta Sergio Navarro aritu ziren. Aitzinetik hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu zuten Doneztebek eta Irurita Bk. Doneztebarek honako laukotea plazaratu zuten:

Julen San Miguel, Jokin Arraztoa, Xanti Mingotia eta Damian Iribarren. Irurita Brekin, Xabier Bazterrika, Xabi Barberena, Jagoba Ramos eta Patxi Obregozo aritu ziren. Guzira bortz talde aritu dira txapelketa honetan, Oitzek ere bere laukotea atera baitzuen. Orain, Paxaka txapelketaren antolaketa-ri ekin dio Laxoa Elkarteak.



- ❖ Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa Emakumeen artean, Maika Ariztegi iturrendarra suertatu da irabazle Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan. Aizarnazabalen urriaren 1ean egin zen finala eta Maikak 7 minutu eta 33 segundu behar izan zituen, 50 koxkorrek biltzeko. Mutilen artean, Fernando Etxegarai beratarrak azpitxapel-dun izan zen, 6 minutu eta 25 segundu denborarekin. Abel Onaindi irabazleak baino bi segundu eskas gehiago behar izan zituen.
- ❖ Lizuniagako Igoera laskerketa Urriaren 29an, Lurraren Egunarekin batera, eginen da Beran Lizuniagako XX. Igoera. Gure Txokoak antolatutako proba honetan hamalau urtetik goitiko korrikalariek parte hartzen ahal dute. 10,30etan hasiko da lasterketa eta izen ematea goizeko 9,30etatik aitzinera egiten ahal da. Korrikalariek 4.900 metro egin behar dituzte, horietatik 4.000 igaiten izanen direlarik. Antonio Bru beratarrak irabazi zuen joan den urtean.

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

ELIZONDO

► Urriaren 27 eta 28an Erdiko gehigarrian informazio gehiago.

BERA

► Lurraren Eguna Urriaren 29an egingen da Alzate karrikan.

ARANTZA

► Baserritarren Eguna Azaroaren 1ean.

IKASTAROAK

LEITZA

► Mendiko argazkigintza ikastaroa Hilaren 20a baino lehen apuntatu behar da liburudendatan, eta matrikulak 1.500 peze-ta balio du.

► Yoga eta autoestima ikastaroak Haurtzaindegian, arratsaldeko 5etatik 7etara. 15.000 pezeta.

ZINEMA

LEITZA

► Urriaren 20an "Man on the moon" os-tirala 10,30etan eta igandeetan 7,30etan.

LITERATURA

BERA

► Azaroaren 3an Castillo Suarez Bortziritako Euskara Teknikariak bere lehen liburuaren aurkezpena egingen du arratsaldeko 7,30etan liburutegian.

MUSIKA

BERA

► Azaroaren 1ean Tolosako abesbatzen lehiaketatik, Filipinetako *Manila College Glee Club*eko Ateneo-korala ariko da kultur etxean, 19etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



Iban Isasi iturendarra, albistegiko aurkezle berria

Denboraldi berriarekin batera, aurpegiz aldatu zaigu eguneroko berrien tartea. Joan den astetik aitzinera eta eguberriak bitarte Iban Isasi gazte iturendarrak emanen dizkigu eguneroko notiziariak aipagarrienak. Iban Isasi ezaguna egingen zaizue, lehendik ere Iturengo berriak biltzen baitzituen hamabortzero TTIPI-TTAPA ALDIZKARIAN. Orain, berriz, paperetik kamara aitzinera salto egin eta egunero izanen da zuen etxeetan.

Bainan ez da aurkezlearena izan denboraldi berriak ekarri digun aldaketa bakarra, albistegia goitik beheiti itxuraberritu baita udazken honetan, eta laster atal berriak ere ezagutu ahal izanen ditugu.

Azkenik, aipatu Herriz-herri saioak ortziral honetan bertan egingen duela berriz agerpena ohiko programazioan. Beti bezala, ortziraletan, arratseko 9,30ak aldera.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA, asteazkenero ETBn

ETBko Bertatik Bertara saioak astero tarte bat ireki die Euskal Herriko herri telebistei. TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN irudi batzuk asteazken eguerdian ematen dituzte.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 169,5 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 110-115 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra565
1.koa540
2.koa510
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra580
1.koa565
2.koa530
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 15.000-18.000 eta idixkoak 27.000-33.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 25.000-30.000 eta idixkoak 40.000-45.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

👉 Liburuak



«Baloika»

Aingeru EPALTZA

PAMIELA

Aingeru Epaltza itzultzailea da lanbidez, Nafarroako Gobernuan ari da gaur egun. Nobela, antzerkia zein haur literatura, era guzietako saiakerak egin ditu idazle nafar honek.

Bera eta Asisko eta Markok osatzen dute Absurde ilustraziogile taldearen arteko elkarlanetik sortu da Pamiela argitaletxearen haurrentzako azken liburua. Mikeltxo bere ikastolako futbito taldeko jokalaria da, Ibai bere

lagun minarekin batean. Ahaleginak egiten dituzte sailkapenean gora egiteko, baina beste talde baten azpijokoak bidea moztuko die behin eta berriz. Jokalari berri baten etorrerak badirudi haien zoritxarra aldaraziko duela. Ezusteko gertakari batek, ordea, haien amets guztiak desegiteko arriskuan jarriko ditu.

Irakurketa dibertigarria lehen pausuak ematen ari direnentzat.

JAKIN BEHARREKOAK

'Ez' erraten ikasi

Lagun, senide, lankide eta gure inguruko bertze jendeek egoera istilutsuak biziarazten dizkigute zenbaitetan.

Egoera hauen aitzinean bi aukera ditugu: gure uste eta sineskeren arabera jokatu edo hauek guziz baztertu. Zoritxarrez, bigarren aukera hau da gehienetan egiten duguna, ez dakigulako mugarik jartzen. Pertsona hauek gurekin haserretzeko beldur gara, baztertuak izateko beldurra, istiluak handitzeko, segurtasun eza edo lotsa ere izaten ahal da... bertze hitzetan, gu maitatzeari uzteak beldurtzen gaitu.

Noiz erran behar da "ez"?

"Ez" erranez muga jartzen ez dugularik, gaizki sentitzen gara, tonto xamar, hau da, erabiliak sentitzen gara, gure onespenerekin gainera.

Ez dut erran nahi denari "ez" erran behar zaionik, ezta mesedeak sistematikoki ukatu behar direnik ere, erran nahi dudana gure ideiak segitu behar ditugula eta ez dugula gure sineskerak alde ba-



Ez ditugu gure ideiak baztertu behar norbait gurekin ez haserretzeko.

Duda egiteko eskubidea duzu. Hori da gizaki egiten gaituena.

tera utzi norbait gurekin mintzearen beldur garelakoz.

Hona hemen errudun sentitu gabe "ez" errateko irizpide batzuk. Zure jokabidean irizpide hauek sartzen badituzu autoestimik goiti egingen du, zure bizi-kalitateak hobera egingen du eta bertzen errespetua lortuko duzu.

"Ez" errateko irizpideak:

- Ez duzu beti zure ekingen azalpenik eman behar. Nahiko heldua zara erabakiak hartzeko.

- Ez utzi manipula zaitzaten, oker jokatzeko eskubidea duzu. Halakotan, zure ar-

dura onartu eta ez errudun sentitu horregatik.

- Duda egiteko eskubidea duzu. Hori da gizaki egiten gaituena eta ikasiazten duguna.

- Auniztan ze aukera egin ez dakigula egoten gara. Zenbaitetan denbora gehiago behar dugu hausnartzeko. Ez dudarik egin zerbait ez baduzu ulertzen eta erran eza zu lasai.

- Eguneroko egoerak aldatu eta bilakatu egiten dira, zergatik ezin duzu zure iritzia aldatu? Pertsonak aldakorrak gara, guziz gauza normala da, eta bizi garen ingurura egokitze guziz beharrezkoa gainera.

RAKEL AMIGO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► Urriaren 20an
Mal de Ojo, arratseko
10,30etan Kasino os-
tuan.

► Azaroaren 3an
Sutra (Zaragoza),
10,30etan Kasinon.

BERA

► Lurraren Eguna
Ataitz Txistu banda,
20etan Alzateko eli-
zan.

FERIAK

BERA

► Lurraren Eguna
Urriaren 29an egingen
da Alzate karrikan.

ERAKUSKETAK

BORTZIRIAK

► Argazkilari afizio-
natuen erakusketa
antolatu du Berako
Kultur Batzordeak.
Lanak azaroaren 15a
baino lehen utzi behar
dira Kultur Etxean.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfpora. deitu behar da

► Urriaren 16tik
22ra Etxalar, Narbar-
te, Elizondo (Iturralde),
Leiza eta Goizueta.

► Urriaren 23tik
29ra Arantza,
Doneztebe, Iurrita eta
Goizueta.

► Urriaren 30etik
azaroaren 5era
Igantzi, Sunbilla,
Elizondo (Lezaun) eta
Goizueta.

DISKAK



«Jauzi! Jauzi! Zapoak»

ZAPOZAIN

OIHUKA

Lau urte daramazkite lapurditar hauek ostatur ostatur jendea dantzan paratzen. Rocka doinu zeltiar eta irlandarrekin nahasiz lortzen dute hori, eta beraien helburua jendearen artean alaitasuna eta besta zabaltzea direla aldarrikatzen dute harro. Gitarra, bateria eta baxuaz gain mandolina, bibolina eta galiziar gaita erabiltzen dituzte horretarako, baita txistua eta txirula ere.

Bigarren diskoa dute urrian atara duten hau, duela bi urte "Zangoz jo apo!" izenekoa argitaratu baitzuten. Haren ondoan sarkorragoa da Zapozain taldearen bigarren lana, konposizioz, soinuz eta interpretazioz, eta hori frogatzen saiatuko dira neguko kontzertuetan. Orain arte batez ere Lapurdi aldean jo baldin badute ere, Hegoaldean ere saio ugari eskainiko dituzte Oihukaren eskutik.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Bizitzen jartzeko prest daude.

☎ 948 451 841
607 978 656

GOIZUETA. Etxebizitza salgai, 30 m²ko sotoarekin eta 45 m²ko terrazarekin. ☎ 948 514 027 edo 514 002.

BAZTAN. Pisu ederra salgai kalefakzioarekin, trasteroa, 3 logela eta moblez-tatua. ☎ 629 322 998 (arratsaldetan).

ELIZONDO. Paularena 28an 90 m²ko pisua salgai. Argitsua. ☎ 948 580 608 (gaueko 8etatik 10etara).

LESAKA. Bittirian 90 m²ko pisua salgai. 2. solairua. ☎ 948 637 931 (goizetan).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

DONOSTIA. Pisua errentan emateko Amara auzoan, urritik aitzinera. ☎ 943 720 170 eta 679 954 549 (Mikel).

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

Pisu ttiki bat hartuko nuke errentan. ☎ 948 631 188.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Neska bat behar da Donostian, Antigua auzoan pisua osatzeko. ☎ 948 637 228 (Maider).

Kasu! Euskalduna bazara eta Iruñean pisu bila bazabiltza edo zure pisuan lekurik baduzu, zatoz Karrikirira, Iruñeko euskaldunen elkartera, edo dei egiguzu. ☎ 948 222 589. Helbidea: Xabier karrika, 2. bis, Iruñea.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA. Bittiria karrikan lur-azpiko garaje itxia salgai. ☎ 948 637 463 (gaue-tan).

☎ 948 13 11 36
LODITASUNA?

96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez eginen da.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN



Lezaun-Urbsa

Hostal hau errentan eman nahi dugu. Jantokia, sukaldea, taberna, logelak... Berehala lanean hasteko behar den guzia du. Interesatuak dei dezatela telefono honetara:

☎ 655 700 132

LANA

301 ESKAINTZAK

Neska bat behar dugu Beran haurrak zaintzeko. ☎ 656 71 38 38.

Ostatu batean lan egiteko **neska bat** behar da. ☎ 678 581 267.

Zerbitzaria behar da jate-txe batean lan egiteko, esperientziarekin. ☎ 948 631 106.

La Caixak Beran ireki nahi duen bulego berrirako 29 urtez beheitiko **unibertsitariak behar dira.** Deitu urriaren 26a baino lehen. ☎ 629 759 518 (Felipe).

Pertsona bat behar dugu Berako ostatu batean barran lan egiteko. ☎ 948 631 271.

LANA

302 ESKARIAK

Txatarra biltzen dut, **garraio laburrak** egiten ditut. Baita ere baserri inguruak edo sotoak garbitu. ☎ 678 855 452 (Fermin).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Volkswagen Polo estreinatu gabea, matrikulatua. Hiru ate. Haize egokitua, lagundutako direkzioa, itxiera zentralizatua. ☎ 943 613 749 edo 646 674 213.

Opel Monterrey 3.1 LTD. NA-AV. ☎ 948 305 128.

Opel Kadett 1.6, NA-y, 90.000 km. ☎ 948 635 000 (Javier).



KULTURKARI
publizitatea zerbitzuak

Honda Transalp 600 mo-
toa salgai. SS-AF. Ongi
zaindua. ☎ 948 637 765.

MOTORRA

502 TAILERRAK

GANIX Tailerrak

Iturialdeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra GSI, Astra Sportif (9 hilabete),
C-15 D, Ibiza D, R.Expres D,
Panda 4x4, Kadett GSI, Golf TD
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Behi suiza ernaria salgai.
☎ 948 637 965.

Bi zakurkume eme setter
ingles arrazakoak (oilago-
rretakoak) salgai. ☎ 948
637 865.

Setter ingeles arrazako za-
kurkumeak salgai. Interes-
garria. ☎ 948 627 516.

Basurde ehiziko Grifon za-
kur emea salgai. ☎ 948
387 098.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Giltza batzuk galdu dira
Lesakan. ☎ 948 637 264.

Sakeleko telefonoa aurki-
tu da Berako ikastola pare-
an. Alcatel. ☎ 948 631 121.

Igantzioko bestetan betau-
rrekoak galdu ditut. ☎ 948
630 897.



Bidali
TTIPI-TTAPA
herritik
kanpo
bizi diren
lagun edo
famiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak
ordaindu behar dira. Eskatu
informazioa.

☎ (+34) 948 631188



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten dut:

2000ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2000ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea abenduaren 31 arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez % 20 errekaruarekin kobratuko da.

Bortzirieta, 2000ko urriaren 1ean

Presidentea, Miguel M^a IRIGOIEN



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Beñat Gartxitorena Urdanpilletak 8 urte bete ditu urriaren 19an. Zorionak Intzaren partetik.



Liher Etxeberria Belarrak urriaren 5ean 6 urte egin ditu. Muxuak Belen, Ekhiñe eta Pelloren partetik. Ekin gogoz txirindulari!



Unai Sappuro Alegria doneztebarrak urriaren 18an beteko ditu 7 urte. Zorionak amatxi eta osaba-izeben partetik.



Angel Iraola Verde beratarrek urteak beteko ditu urriaren 19an. Zorionak bere anaia eta iloben partetik.



Patxi Vila Errandonea beratarrek urriaren 11n bete ditu urteak. Zorionak eta mila esker guregatik egin duzunagatik. Uxanekoak.



Iñigo Aldazabal beratarrek 11 urte bete ditu urriaren 11n. Zorionak eta muxu handi bat Mikel, Naiara, guraso eta amonaren partetik.



Andoni Maritorea Ganboa doneztebarrak 6 urte beteko ditu urriaren 14an. Zorionak familiaren partetik.



Irene Matxiarenak urteak beteko ditu urriaren 20an. Zorionak amatxito. Muxu handi bat Andoni, Aitor eta aitaxito.



Beñat eta Mattin zubitarrek irailaren 13 eta urriaren 12an urteak bete dituzte. Zorionak joaldun ponpoxoenei, Mikele txikiaren partetik. Muxu handi bana!



Olaia Otxoteko Dominguez irundarrak urriaren 10ean 3 urte bete ditu. Muxuak eta aunitz urtez "koxi". Atta eta ama.



Gabon Gamio Etulain aniztarrek 9 urte bete ditu urriaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat zure familiaren partetik.



Maitane eta Mikel Oteiza Gonzalez gazteluarrak 2 urte beteko dituzte urriaren 3an. Zorionak atautxi, amatxi, aita eta amaren partetik. 2 urte, 2 musu handi.



Oihana Berasategi Artieda beratarrek urriaren 16an urte egin du. Zorionak familiaren partetik.



Iban Telletxea Iribarren beratarrek urteak beteko du urriaren 29an. Aunitz urtez eta muxu handi bat aita eta amaren partetik.



Iñaki Antsalas Elizalde beratarrek urriaren 13an 18 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Nahia beratarrek 12 urte beteko ditu urriaren 18an. Zorionak familiaren partetik.



Etxalarko Arantxa Sansiñenak urriaren 22an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu aunitz.



Uxua Altzugarai Iratzoki gazteluarrak azaroaren 3an 7 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik, eta muxu handi bat.



Maite eta Xabier Arraztoa Lazkanotegi beratarrek 3 urte bete dituzte urriaren 17an. Aunitz urtez eta muxu aunitz aita eta amatoren partetik.



Unai Santos Telletxea lezoarrak urriaren 24an 15 urte beteko ditu. Zorionak Bera, Hondarribia eta Lezoko familien partetik.



Martxel Lizarraga Telletxea hondarribitarrek urriaren 13an 16 urte bete ditu. Zorionak Bera, Hondarribia eta Lezoko familien partetik.



Itziar Mutuberria Arregi leitzarrek urriaren 4an beteko ditu 8 urte. Zorionak bere guraso eta anaia Josebaren partetik.



Sheila eta Maider Mitxelena aranztarrek 4 eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik. Aupa Pottokak!



Andoni Eizagirre Zubietta irundarrak 3 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak familiaren partetik. Muxu handi bat, baturro.



Raket Lanz beratarrek urriaren 22an beteko du urtea. Zorionak familiaren partetik.



Aunitz urtez Xabi! Azarun 4in prestazu afere ona ta... prestatxkia!! Zure sukalko ekipun partetik musu "pasa" bat zuzetzat, nagusi!

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Egurrezko **sukalde kale-faktorea** salgai. Arras egoera onean dago. ☎ 609 744 757.

Lakuntza markako egurrezko **sukaldea** salgai. Termo elektrikoa. Egoera oso onean. ☎ 617 808 848.

Kalefakzioarako kaldera (egurrezkoa) salgai. Broca markakoa. ☎ 948 514 003 (denda orduetan).

Bigarren eskuko **sukalde ekonomikoa** erosiko nuke. Ur bero eta kalefakzioz gabekoa. ☎ 948 630 421.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Urriaren 2an urteak bete dituen **osaba Andoniri** zorionak etxekoen partetik. Abudo etorriko zarelakoa, zure ilobak. Errefuxiatuak ere etxerat!



Sorjinen Laratza

PUBLIKOIA BEHAR DA

Urriaren 31n saioa ikustera joateko. Baldintzak: euskara jakitea eta 20 urte baino gehiago izatea. Autobusa Beratik aterako da. Hilaren 20a baino lehen deitu.

☎ 948 63 11 88

2001eko

telefono gida

prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora





Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa.: 948 45 32 59
Faxa: 948 45 34 23
E-posta: betikopvc@teeline.es

4 arrazoi on PVC jartzeko



Kalefakzioan
% 35a
ahorratzen
duzu

ISOLAMENDUA



Ez du
pintura
beharrik

MANTENU ERREXA



Ur eta
haizeaz
babezteko,
baita ere
soinuetatik

HERMETIKOTASUNA



Denborak
ez du alda-
razten

IRAUNKORTASUNA

Zertarako hotza pasa, soluzioa daukagunean

BETIKOn gisa guzietako itxierak egiten ditugu, kolore mota aunitzekin, baita haritza, pinua, kaoba, etab. ere.



Portxeak




Balkoiak



Zure behar guzietara egokitzen gara




Ateak



Leihoak



Deceuninck markaren perfilak kalitaterik handienekoak dira, Aenor eta NFren zertifikatuarekin, bertzeak bertze.



Eskatu aurrekontua loturarik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu

Lurra Eguna

2000

Urriak 29

bera



GOIZEAN:

10,30etan: Lizuniagako Igoera
10,30etan: Barazki erakusketa eta sagardo dastaketa, Bortzrietako produktuen salmenta, Sagardo eta Gasna Lehiaketa
10,30etan: Txalaparta
11etan: Berako trikitilariak
11etatik aitzinera: Eskulangileen erakusketa arratsaldeko Gak arte
12etan: Musika Eskolako banda, akordeoilaria eta txistulariak

ARRATSALDEAN:

16etan: Trikitilariak
17etan: Txaranga
17,30etan: Bertsolariak: Irazu eta Elizagoien. Gai-eaile: Julen Zelaieta Gasna Lehiaketako sari banaketa eta enkantea.
18,15etan: Perkusio taldearen saioa
19etan: Irats taldearekin dantzaldia
20,30etan: Arantzako "Zioren" taldea



Antolatzailea:
Gure Txokoa elkarteak
Babeslea:
Berako Herriko Etxea

Laguntzaileak:
Berako Guraso Elkarteak
IKA
Berako Euskara Batzordea